

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 16a / 540. zenbakia



www.bergara-udala.org

Puntako teknologiadun webgunea estreinatu du Udalak, besteak beste, adimistrazioa herritarrei gerturatzeko

HAUTESKUNDEAK: ORDEZKARI POLITIKOEKIN BERRIKETAN/8 • FUTBOLA: RACHAEL OLABARRIA/12



Victoriano Gallastegi.
Bergarako Alkatetzarako Hautagaia.

Orain Bergara.



Bozkatu eraginkor.



ZARAITZU

Artisau-produktuak

Fraiskoizuri plaza 3
Telefonoa: 943 76 46 64

OSPAKIZUNETARAKO

- Gazta
- Barazki ekologikoak
- Onddoak
- Ehiza-produktuak
- Ahatekiak
- Nafarroako kontserbak
- Estatu osoko artisau produktu sorta ezin hobea...

ARDOAK

- Errioxa
- Queda
- Duero Erriberako ardoak.
- Nafarroako ardo apartsuak: Basondoa eta beste marka batzuk

EDOZEIN EGUNETARAKO

- Bertako barazki ekologikoak
- Gaztelako lekadunak: dilistak, garbantzuak, babarrunak...
- Foie-grasa
- Konfita
- Urdaiazpikoa
- Maigreta
- Datea
- Primerako Gujueloko hestebete iberikoak...



Inaki jauregi,
Zaraitzuko arduraduna



Eta orain...

PLATER

PRESTATUAK

- Oilaskoa
- Paella
- Albondigak
- Arraina
- Bakailoa hainbat eratan
- Kroketa hariatuak
- Ubaberriko rollitoak
- Haragia
- Postreak
- ...EDO ZEUK ESKATUTAKO BESTE EDOZEIN PLATER

ATREBENTZIAEZPADA/ Beste herri batzuetako informaziñua jasotzeko erabiltzen dozu Internet?



JONATHAN PINEDA
21 urte




MARIFE LIBERAL
48 urte



AITOR BELATEGI
32 urte



MARI JOSE INTZA
42 urte



RAUL MÁRQUEZ
18 urte



ANDER UGALDE
24 urte

Bai, asko erabiltzen dot, informatikua naiz-eta. Beste herrixetako informaziñua topatzeko orduan, batez be turismuakin lotutako gauzak izaten die: ibilbidiak, hotelak...

Ez dot Internetik erabiltzen, ez beste herrixetako informaziñua topatzeko, ez beste ezetarako be. Oporretan norabait juteko asmua badaukagu, bidaia agentzia batera juten gara.

Inguruko herrixetako informaziñua jaso nahi badot egunkarixa irakurtzen dot. Bidaiatzeko baldin bada, orduan bai erabiltzen dot. Batez be lotarako tokixa topatzeko.

Askotan ez. Biharrik be ez dot euki. Inoiz erabili dot umiak udalekuetara bialtzeko. Seme-alabek gehixago erabiltzen dabe nik baiño, eta euren bidez erabili izan dot nik.

Batzutan erabiltzen dot, baiña ez beste herri batzuetako informaziñua bilatzeko. Beste informaziño mota bat topatzeko: autuen igorak eta lasterketak, esaterako.

Ez. Internet etxian badago, baiña nik ez dot erabiltzen. *Konekta zaitez* ikastarua be egin neban, baiña ez da gehixegi interesatzen jaten gauza bat eta horregatik ez dot erabiltzen.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZABORRA ERREKARA Hain aurrerakoiak gara hainbeste gauzatan ezen batzuetan oinarri oinarritzko gizabideak ahaztu egiten ditugula. Irakurle baten hala esan digu, haserre. Erreka ondolan bizi dela esan du, eta gezurra dirudien arren, oraindik ere zabor poltsak ikusten ei ditu, hegan, inguruko leihoren batetik errekarabidean. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6	KIROLAK /13	KULTURA /15
Webgune berria du Udalak	Iker Azagirre, finalera	Gabero abesbatza
<i>www.bergara-udala.org</i> helbidean herriaren eta Udalaren gaineko informazio ugari jaso dute.	Iker Azagirre eta Esnaola Bergara Hiria Pilota Txapelketako finale-rako sailkatu ziren martitzenean.	Torrevejako Ha-ur eta Gazte mailako IX. Nazioarteko Habanera Lehiaketa irabazle izan da.

ASTEKO DATUA

500

JOKALARI INGURU IPINTZAKO TXAPELKETAN

Eguenean hasiko da Ipintzako Futbol Txapelketa. Hainbat mailatan banatuta 49 talde izango dira lehian, horietako 21 Futbol 11ko txapelketan. 500 bat jokalarik hartuko dute parte.

BESTE EKESANA

“ETA unibertsitateko gure lankideetako batzuk mehatxatzen hasi zenetik, giroa arrarotu egin da.

Egonezin hori ezin da parekatu mehatxatuek jasaten duten angustiarekin, baina giroa ia guztiondako bihurtu da astuna. Eta oraingoz ez dirudi tunel horri irteera ikusten zaionik. Horri gehitzen badiogu Estatuko gobernuaren azken ekintza, hau da, **ETAko presoak EHU**n matrikulatuta izatea debekatu izana, ez da harritzekoa, unibertsitate publikoa maite dugun askok sentitzea sabelean ukabilkada bat eman digutela. Ez da interes berezia dugula, ezta interes falta ere ikasle horiei azterketak egiteko. Arnasarik gabe utzi gaituena da, frogarik gabe zabaldu izana, mesede berezia jaso dutela presoek. **MARI CARMEN GALLASTEGI / EHUko Ekonomia katedraduna 'El Diario Vasco' /03-05-14**

BERAIEKDIÑO / Iñigo Iñurrategi



Debagoieneko inozoak

Hauteskunde garaia denez (sasikoak izan arren), propaganda-rik egin gabe herritar guztion intereseko gai bati buruz kontu batzuk azaldu nahi nituzke.

Gure bailaran autobus bidezko zerbitzu publiko nagusia PESAk ematen duena da. Zerbitzu honen inguruan datuak ematera mugatuko naiz. Adibidez, Donostia joan nahi izanez gero, astegunez, ordutegiak hamar aukera eskaintzen dizkigu. Bergararik Donostiarako 62 km-ak egiteko 5,55 euro ordaindu behar dira (lehengo 923 pezeta), autopistaz, eta beraz, kilometroko 15 pezeta ordaintzen ari gara. Antzerako kalkulua Bergara eta Arrasate arteko bidaian eginez gero (9 km, 0,90 euro, 150 pezeta), konturatuko zarete kilometroko 17 pezeta ordaintzen ari zaretela.

Jo dezagun orain Bizkaia aldera, eta azter dezagun Elorrio eta Bilbo arteko

loturak. Egunean hamabi aukera ezberdin dituzte Elorriotik Bilbora, autopistaz joateko. Edozein lekutan lor daitekeen txartel baten bidez 1,75 euro (291 pezeta) ordaintzen dute, beraz, Bizkaibuseko bezeroek kasu honetan 7 pezeta kilometroko ordaintzen dute.

“Autobusez Bergararik Donostia joateko 15 pta. kilometroa. Elorriotik Bilbora, 7 pta.”

Gainera, eta ondoren beste autobus, metro, edo tranbia bat hartuz gero, %20ko deskontua dago garraibide berrian. Azkenik, 65 urtetik gorakoek eta mugikortasuna murriztuta dutenek edozein lineatan 0,35 euroko tarifa finkoa daukate. Bukatzeko, eta gehiegi luzatu gabe, Durangotik Leioarako unibertsitate zerbitzuak ebaki batek baino gutxiago kostatzen du, edo Axpe-ko bailarak Oñatik baino autobus zerbitzu hobea du.

Azken datua: Durangaldeko Bizkaibusen garraio zerbitzua PESAk eskaintzen du.

Horrenbestera inozotzat hartzen gaituzte garraio publikoaren arduradunek?

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 16
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 17
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 18
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 19
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA, 20
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 21
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 22
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta	Zapatuak: 20:00.
lanegunak:	Angiozar
19:00.	Domekak: 11:30.
Sierbak	Moja Zaharrak
Lanegunak: 19:15.	Lanegunak: 09:00.
Zapatuak:	Zapatuak: 11:00.
19:00.	Mizpirualde
Domekak:	Lanegunak: 11:45.
11:30, 13:00.	Zapatuak: 17:30.
Osintxu	Antzuola
Domekak: 12:30.	Domekak:
Zapatuak: 19:00.	09:00, 11:30.
Elosu	Zapatuak eta
Domekak: 10:30.	lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1958AN JAIOTAKOAK
1958an jaiotako enafaria maiatzaren 17an Antxonin. Egunean bertan Antxonin elkartuko dira, 20:00etan.

1968AN JAIOTAKOAK
1968an jaiotako enafaria maiatzaren 24an Batzokian, 22:00etan. Egunean bertan Ganbara tabernan elkartuko dira, 19:30ean.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako enafaria maiatzaren 31n Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza egongo da, Sierbetan, 19:00etan. Izenematea (15 euro) Mizpildin, Edelen edo Azpeitxin.

HELDUEN ESKOLA
Helduen Heziketa Iraunkorrek Eskolak datorren ikasturterako aurrematrikula epea zabaldu du. Interesatuak maiatzaren 30era arte jo dezakete Irizar jauregiko bigarren solairura. Argibideak 943 76 44 52 telefono zenbakian.

XIPIZARO LUDOTEKA
Udalekuetarako umeak apuntatzeko epea maiatzaren 23ra arte egongo da zabalik. Interesatuak Seminarioko lokalera jo dezakete, 10:00etatik 12:00etara. Argibideak: 943 76 23 76.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Maiatzean Arrizuri domeketan bakarrik egongo da zabalik Txapligu taldekoendako, 16:00etatik 20:00etara. Txiskrilabi taldekoendako jolasak izango dira bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etatik 20:00etara. Bestalde, bihar, Olinpiadak izango dira San Martin plazan. 16:00etan hasita.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soralue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Eusko Alkartasunaren egoitza inauguratu zuten

Eusko Alkartasunaren Alkartetxea inauguratu zuten 1993ko maiatzaren 15ean. Besteak beste, Iñaxio Oliveri, Imanol Murua, Xabier Gurrutxaga eta Eneko Oregi EAko buruzagiak egon ziren Barrenkalea kaleko 18ko egoitzan. Herritar dezente ere hurreratu zen inauguraziora.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Maluskau”



Muskildu, lardaskatu.
— *Umaiak oillaskua jan ez, baiña dana maluskauta laga, bai.*
— *Txakurrak sagar guztiak maluskau dittu.*
Perretxikuak, adibidez, plastikokoan nola-hala ekartzen badira *maluskauta* geratzen dira.

ASTEKO FILMAK

‘JOHNNY ENGLISH’
ZUZENDARIA: PETER HOWITTL. AKTOREAK: ROWAN ATKINSON, JOHN MALKOVICH.

HARIA. Windsorko Koroako harribitxiak arriskuan daude, baita Erresuma Batuko erreginarene familia eta herrialdearen etorkizuna ere. *Johnny English* super-espioia uharteak salbaterazera bidaliko dute...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

‘MI VIDA SIN MÍ’
ZUZENDARIA: ISABEL COIXET. AKTOREAK: SARAH POLLEY, MARK RUFFALO, DEBBIE HARRY.

HARIA. Bi alaba dituen 23 urteko neska batek bere bizitzarekin hilabete gutxian bukatuko duen minbizia duela jakingo du. Inguruko mina baretzen saiatuko da, eta, aldi berean, bete barik zituen esperientziak ezagutzeko ahaleginak egingo ditu.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hilak 22, 20:00etan. Zineklubeko emaldia.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

HAUGIROA!

MINIMOA 6 °C
Domeka, 11

MAXIMOA 24 °C
Astelehena, 12

ASTEKO EURIA (l/m²) 17,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	13 °C	9 °C	16,6 l/m ²
Eguena, 8	16 °C	10 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 9	17 °C	7 °C	— l/m ²
Zapatua, 10	20 °C	8 °C	— l/m ²
Domeka, 11	20 °C	6 °C	— l/m ²
Astelehena, 12	24 °C	8 °C	1,2 l/m ²
Martitzena, 13	16 °C	11 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



BERGARA Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



BERGARA
Francisco Pineda
Maiatzaren 21ean,
urtebetetzea. Urte
askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Gorka Iñurrategi
Maiatzaren 13an, 20 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jane Agirre
Maiatzaren 18an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Aimar.



BERGARA
Josu Agirre
Maiatzaren 22an, 5 urte.
Urte askotarako!
Cuevas-Agirre familiakoak.



ANTZUOLA
Jon Agirre
Maiatzaren 16an, 37 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ANTZUOLA
Josune Luna
Maiatzaren 20an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Karmele Uribesalgo
Maiatzaren 19an, 7 urte.
Zorionak! Familiakoak;
batez ere Beñat.



BERGARA
Xabier Beistegi
Maiatzaren 19an, 28 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Iker Gorriti
Maiatzaren 18an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak;
berezi Josu eta Ziortza.



BERGARA
Josu Gorriti
Maiatzaren 18an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak;
berezi Iker eta Ziortza.



BERGARA
Jabi Rodriguez
Maiatzaren 15ean, 27
urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



ANTZUOLA
Yeraí Gómez
Maiatzaren 10ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ELGETA
Iñaki Beristain
Maiatzaren 21ean,
11 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Joseba Osa
Maiatzaren 21ean, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iñaki Galarraga
Maiatzaren 19an, 7 urte.
Urte askotarako eta musu
handi bat! Etxeko guztiak.



BERGARA
Tamara Zafra
Maiatzaren 20an, 5 urte.
Zorionak! Gurasoak,
Belinda eta Maria Jose.



BERGARA
Jose Zafra
Maiatzaren 21ean, 50
urte. Zorionak! Belinda,
Maria Jose eta Marife.



BERGARA
Aurken Beistegi
Maiatzaren 18an, 15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

TEKNOLOGIA / Herriaren eta Udalaren gaineko informazio ugari du eta Goiena Komunikazio Zerbitzuek garatutako eta kudeatutako webgunea da

Udalak puntako teknologiadun webgunea estreinatu du: 'www.bergara-udala.org'

MONIKA BELASTEGI

Udalaren webgune berriak Zope web aplikazioen zerbitzaria du oinarrian; hau da, administrazioa herritarrengana hurbiltzeko aukera hobereak eskaintzen dituen softwarea. Guneak Udalarekiko hartu-emanak areagotzeko eta errazteko helburua du, besteak beste.

Martitzenean aurkeztu zuten webgunea. Ekitaldian egon ziren Victoriano Gallastegi alkatea, Koldo Pereira Kulturako batzordeburua eta gunearen arduraduna, eta Iban Arantzabal, Goiena Komunikazio Zerbitzuetako telematika zuzendaria.

Iaz ekin zion Udalak webgunea prestatzeko lanari, eta aurkezpenean Victoriano Gallastegi alkateak azpimarratu zuenez, informazio ugari eta denerakoa du bere baitan; herritik kanpoko jendearendako eta bergararrendako erabilgarria den informazioa, hain justu ere: herritik kanpoko kasuan, Bergara ezagutzeko aukera handiagoa izango

The screenshot shows the website 'BERGARAKO UDALA' with a search bar and navigation links: Gure Herria | Udala | Turismoa | Argitalpenak | Albisteak | Equegia. A sidebar lists categories: ARGITALPENAK, Artea, Biografiak, Euskara, Historia eta geografia, Kirolak, Musika, Bestelakoak. The main content area is titled 'Kirolak' and features two book listings:

- ARANBURU EPELDE, Iratxe "Gimnasia erritmikoa"**
Egilea: Iratxe Aranburu Epelde
Argitaratzailea: Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak, 2
Ezaugarri fisikoak: karpeta 1 (114 or.); 16 x 24 cm
ISBN: 84-920247-9-8
Hizkuntza: euskera.
Prezioa: 6 €
- ARANES, Jorge "Tenisa"**
Egilea: Jorge Aranes
Argitaratzailea: Deba Bailar
Ezaugarri fisikoak: karpeta
ISBN: 84-923475-1-1
Hizkuntza: euskera 6 €

Herriaren eta Udalaren gaineko informazio ugari du guneak. Irudian, kirolen gaineko webgunearen orrialde bat.

dutelako, eta bergararrei dagokienez, herria hobeto ezagutzeko aukera izateaz gain, Udalarekiko harremanak areagotu eta errazteko balioko duelako.

ZER DAGO WEBGUNEAN?

Informazio guztia bi hizkuntzatan dago, euskaraz eta gazteleraz, eta sei sarrera nagusi ditu, bakoitza informazio ugarirekin: gure

herria, Udala, turismoa, argitalpenak, albisteak eta egutegia.

Udalaren kasuan, esaterako, proiektu nagusiak, azpiegiturak, Udaleko erabakiak, eta zerbitzuak

eta tramiteak daude. Albisteen atalean, berriz, herrian gertatzen diren albisteen berri irakurri ahal izango da. Gainera, atal horrek harpidedun egiteko aukera eskaintzen du eta norbere orde-nadorean albiste guztiak jasotzekoa.

PUNTAKO TEKNOLOGIA

Webguneak Zope web aplikazioen zerbitzaria du oinarrian. Aurkezpenean esan zutenek, Europako administrazioerik puntakoenek euren webguneak egiteko erabili duten oinarri edo software librea da Zope, besteak beste, Frantziako Barne Ministerioa. Izan ere, "frogatuta dago software hori dela egokiena administrazioa herritarrengana hurbiltzeko modu erraz eta dinamikoan".

Bestetik, webgunearen ekoizpenari dagokionez, Zope softwarea oinarri zutela, Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Eibarko Code&Syntax informatika enpresak sortu dute. Eta garapenean eta kudeaketaren kasuan, Goiena Komunikazio Zerbitzuak arduratuko da horretaz.

Jaietarako prestakizunei azken ukituak ematen dihardute Udalak eta talde ugari

MONIKA BELASTEGI

Gero eta gutxiago falta da Mendekoste jaietarako. Ekainaren 6an hasi eta 10era arte iraungo dute aurten. Udalak eta herriko hainbat taldek lanean dihardute ordurako guztia gertu egoteko.

Ohi bezala, Bitorianatxok emango die hasiera jaiiei, 20:00etan. Hortik aurrera, jai-gune guztiak zabalduko dituzte. Barraken kasuan, Poligonoan jarriko dituzte eta prezioari dagokionez, buelta bakoitzak 1,50 euroko prezioa izango du; Haurren egunean -astelehen goiza- eta eguaztenean, berriz, 0,75 euro.

TXOSNA BATZORDEA

Txosnei dagokienez, ohi bezala Bideberriko gunean jarriko dituzte, eta horrez gain, San Martin plazan ere bat egongo da. Horren ildo-



ANDER GILLENIA

Barraketako buelta bakoitzak 1,50 euroko prezioa izango du.

tik, duela lau urte sortutako Txosna batzordea buru belarri dabil jaietarako egitaraua antolatzen, eta ia guztia prest dute. Gainera, berritasun bat ere badu batzorde

horrek. Aurreko astetik webgunea dute: www.bergarakua.org. Txosna batzordeak herritarren zerbitzura jarritako gunea da, eta Pazkoetarako antolatu duten

egitarauaz gain, batzordea osatzen duten taldeen gaineko informazioa, argazkiak eta eztabaidarako gunea dute, besteak beste. Egilea, bestalde, Lander Juaristi batzordeko kidea izan da.

BIDEBERRIKO ROCK KONTZERTUAK

Bideberriko gunean izango diren rock kontzertuak ere zehaztuta daude. Honako taldeak egongo dira: egubakoitzean, Niños Mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900; zapatuan, Cool jerks, RIP KC, Bumer eta Black sheeps; eta astelehenean, Sorkun, Kokein, Eraso, Destrucción eta Goiko Rock.

Bestalde, Udalak urtero jaietako egubakoitzerako antolatzen duen ekitaldi nagusian A Coruña-ko Luar Na Lubre taldea ikusteko aukera egongo da, Udal pilotalekuan. 1986an sortutako taldea da, eta Galiziako folk musika egiten du.

LABUR

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea

Udalak aditzera eman duenez, atzo, eguena, ireki zen 2003. urteko ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea. Ordainketa egiteko borondatezko epea ekainaren 30era arte izango da. Borondatezko epea bukatu ondoren, erretegiak kobratuko da.


Ordaintzeko era eta lekua honakoa da: ordainagiriaren ordainketa banketxeraren bidez, helbideratuta duten zergadunei, banketxe beraren bidez bidali eta kobratuko zaie.

Ordainagiriak helbideratu gabe dituzten zergadunek, berriz, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharrezkoa den agiria. Agiri horrekin edozein banketxetatik edo Udal bulegoetatik pasa daitezke ordaintzeko egitera.

LIKIDAZIOA JUBILAZIOAGATIK

Zapatuan, maiatzak 16, egun osoa zabalik!

telkar
Bitxiak eta erlojuak
Ibargarai 2



Plana diseinatzeko lau irizpide hartu dituzte kontuan: besteak beste, plana Udal osoarena eta gizarte osoarena izatea.

EUSKARA/Euskararen normalizazioan orain arte egindako lana sakontzea du helburu

Euskara Biziberritzeko Plana onartu du udalbatzak

MONIKA BELASTEGI

Astlehenean onartu zuen. 2003-2007 eperako plan estrategikoa da, eta haren bidez euskararen normalizazioaren arloan orain arteko lana sakontzea dute helburu. Planak EAJ/EA eta PSE-EEren aldeko botoak eta SAREN abstentzioa jaso du.

Euskara Biziberritzeko Planak biturri nagusi izan ditu: batetik, Bergarako Azterketa Soziolinguistikoa. Azterketa hori EHUKo Soziologia fakultateko talde batek eta Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak egin zuten elkarlanean eta datozen urteetarako ildo nagusiak markatzen ditu. Beste-

tik, 1999an Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.

Edukiari dagokionez ere, bi atal nagusi ditu planak: bata, egungo egoeraren diagnostika. Bertan, Bergarako egoera soziolinguistikokoaren berri jaso dute, esparruz esparru. Bestea, 2003-2007 eperako plan estrategikoa da. Hor jaso dituzte: planean finkatutako helburu nagusi eta estrategikoak, esparru bakoitzerako finkatutako helburuak eta martxan jarriko dituzten neurriak eta ekintzak.

PLAN INTEGRALA

Lana diseinatzerako orduan lau irizpide hartu dituzte kontuan: bata, batasuna izango duen plan

integrala izatea, hau da, herriko esparru gehienetara helduko dena. Bestea, plana Udal osoarena eta gizarte osoarena izatea. Hirugarrena, herriz gaindiko ikuspegia izatea; eta, laugarrena, ekimen edo egitasmo berriak bereziki zaintzea.

EAJ/EA eta PSE-EEren aldeko botoekin egin du aurrera planak. Sozialista Abertzaleak, berriz, abstenitu egin ziren. Haien esanetan, goitik datorren plana da eta euren apustua da herritik abiatuz herriarendako tresna bat sortzea, Kontseiluarèn Plan Estrategikoaren ildotik. Bestalde, bilkurara hurbildutako EHEko kide batek esan zuen bere taldea ere ez datorrela bat planarekin SAREN arrazoi ildo beragatik.

Soraluzera arteko trenbide zatia bidegorri egingo dute

MONIKA BELASTEGI

Tarteak 6,6 kilometro ditu eta oinezkoendako eta txirrindulariendako bidegorri bihurtuko dute. Bi zatitan konponduko dute: lehenengoaz Aldundia arduratuko da; bigarrenaz, Bergarako eta Soraluzeko udalak.

Egubakoitzean aurkeztu zuten hitzarmena udaletako eta Aldundiko ordezkariak. Hitzarmenaren oinarria da Bergara eta Soraluzera arteko trenbide zaharra konpontzea. Nekazaritza eta Ingurumen Diputatu Jon Mikel Muruak azaldu zuenez, "trenbide zaharreko tarte hori oso gune egokia da paseatzeko zein bizikletaz ibiltzeko, eta hain zuzen, jende ugari erabiltzen du. Dena dela, ez dago egoera onean eta ez ditu bizikletendako eta oinezkoendako bide batek beharko lituzkeen baldintzak betetzen".

Tarteak 6,6 kilometroko luzera du -1,54 kilometro Soraluzeri dagozkio eta 5,06 Bergarari-, eta konpontzeko erabiliko duten oinarria da Sestra enpresak egindako proiektua. Lanen aurrekontuari dagokionez, 868.520 eurokoa da.

BI ZATITAN KONPONDUKO DUTE: BATA, ALDUNDIAK; BESTEA, UDALEK

Ibilbidea bi epetan konponduko dute: lehenengoan, Soraluzetik Osintxura arteko tarte konponduko dute: 2.360 metro ditu, konponketaren aurrekontua 413.000 eurokoa da eta Foru Aldundia egingo da horren kargu. Gainera, Jon Mikel Muruak esandakoaren arabera, konponketa lanak lehiaketara atera dituzte, dagoeneko, eta sei hilabeteren buruan konponduta egongo da bidegorriaren lehen tarte hori.

Proiektua bi epetan egiteko arrazoia da ibilbidearen bigarren tarteetan -Osintxutik Bergara arteko tarteetan-, beste egiteko batzuk ere aurreikusita daudela: batetik, industria garpenerako gune berria; bestetik, Mekolaldeko Ur Hondakinen Araztegia, eta, azkenik, Bergarako interzeptorea. Hori horrela, lehenik eta behin esandako hiru eginkizunak bukatu nahi dituzte, ondoren bidegorriari ekiteko.

Bigarren tarte horrek -Osintxu eta Bergara artekoak-, 4.240 metro ditu, 455.500 euroko aurrekontua du eta Bergara eta Soraluzeko udalek finantzatzeko dute.



Sudupe Soraluzeko alkatea, Gallastegi, Murua diputatua eta Etxeberria.

MONIKA BELASTEGI



Bergara Aurrerak webgunea dauka

www.aurrera.org helbidea du eta aurkezpenean esan zuten, ez da "bakarrik hauteskunderi begira sortutako gunea. Benetako garrantzia gero hartuko du". Horren ildotik, bi helburu dituela gehitu zuten: "Batetik, eztabaida gunea izatea nahi dugu, eta, bestetik, Bergara Aurrerak Udalean jardungo dugun neurrian, hango informazioa herriarregan hurbiltzeko erabiliko dugu". Gunea bi atal nagusi ditu: batean taldearen gaineko informazioa dago; bestea parte-hartzailea da.

LABUR


Errelebuka dihardutenendako Internet ikastaroak

KZGuneak antolatu ditu, eta ekaineko lehen hamabostaldian izango dira ikastarook. Errelebuka lan egiten dutenei zuzenduta daude eta bi ordu-tegi egongo dira: 09:00etatik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Ikastaroak ekainaren 2an hasi eta 17an bukatuko dira. Internet hasierako maila eta Internet sakontze maila egongo dira. Bestetik, doan dira eta izena KZGunean eman daiteke edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

M25 / BERGARAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Maiatzaren 25era begira, sei ordezkari politiko elkarrizketatu ditugu



EA-EAJ

Victoriano Gallastegi

BERGARA / 62 URTE

Hiru agintaldi bete ditu Bergarako alkatetzan eta aurretik beste bi agintalditan Udaleko zinegotzi izan zen. Gaur egun Debagoieneko Mankomunitateko presidente ere bada. Nagusiki, abian jarritako hainbat proiektu gauzatu ikustearren alkatetzarako berriro aurkeztea erabaki duela diosku.

Udaleko proiektuen artean zeini ematen diozu lehentasuna?

Agorrosingo kirolgune berriak berebiziko garrantzia dauka. Bost urtean 10,2 milioi euro inguru eskatuko ditu proiektuak, baina horrek ez du esan nahi beste batzuk albo batera lagako ditugunik. Besteak beste, etxebizitza eta industria esparruetan hainbat proiektu ditugu eta, era berean, auditoriaren proiektuari heldu nahi diogu. Horretarako gobernu zentralarekin negoziatzen dihardugu Udalak Seminarioa eskura dezan. Bestalde, herriko auzoetan ere badago lana egiteko.

Zein aurreikuspen egin duzue maiatzaren 25erako?

Gaur egungo egoera zein den ikusita ez dago horrelako balorazio bat egiterik. Egoera normal baten aurrean gure helburua beti da zinegotzi kopurua gehitzea. Baina ez gaude hauteskunde normal batzuen aurrean eta edozer gerta daiteke. Hauteskunde hauek ez daude demokratikoki behar bezala

prestatuta, gizartearen zati inportante bat alboratuta laga dutelako. Ez nago ados legez finkatutako egoerarekin; jendeak aukera demokratiko bat egitea nahi nuke.


Alderdi batek ezin aurkezteak zer ondorio ekar dezake Bergaran?

Ez dakit irtenbidea zein izango den, inkognita da. Egoera zein den ikusita, boto baliagarria inportantea izango da. PP badakigu zelakoa den, baina gaur egun PSOeri botoa ematea PPri ematea bezala da. Biek ere nazionalismoaren kontra dihardute eta horren aurrean Euskadi defendatu beharra dugu.

Bergaran zelako gobernu osatzea nahi zenuke?

Gehiago absolutua ez dut gustuko, nahiago dut alderdi guztien partaidetza. Gobernuan planteamendu eta proposamen guztiak onartu izan ditugu. Horregatik batzorde informatzaileak indartzearen aldekoa izan naiz beti. Herri mailan lan egiteko korporazio sendoa nahi nuke, Bergarako dituen aukerak garatzeko.

"Gehiago absolutua ez dut gustuko, nahiago dut alderdi guztien partaidetza Udalean"



BERGARA AURRERA

Jesus Mari Garitano

BERGARA / 56 URTE / TEKNIKARIA

Urte asko daramatza zeregin horretan, eta orain dela lau urte hura izan zen EH taldeak alkategai aurkeztu zuena. Orain, Bergara Aurrerak ere Jesus Mari aurkeztu du plataformaren alkategai. Maiatzaren 25ean herritarrek Bergara Aurreraren aldeko apustua egiteko aukera izango dutela azaldu du.

Konstituzionalaren erabakiaren gaineko ze balorazio egiten duzue?

Euskal Herriaren kontrako hamaikagarren erasoa da eta ez badugu behingoz planto egiten, berdin jarraituko dute. Ezin da inondik inora esan hauteskunde demokratikoak direnik, *putxerazoa* egon da. Hala ere, Espainiako Estatuak horrelako pausoak ematen baditu esan nahi du ondo dihardugula, eta bide beretik jarraitu behar dugu.

Zer egingo duzue maiatzaren 25ean?

Bergarako abertzaleak eta ezkeriarrek Bergara Aurreraren aldeko apustua egiteko aukera izango dute traba guztien gainetik.

Eta maiatzaren 25aren ostean?

Hauteskundeetan egongo gara eta ziur gaude herritar askok guran konfiantza adieraziko dutela. Hori horrela, jende horrekin konpromisoa izango dugula ulertzen dugu; orduan, lege arrotzak albora utzita, gure asmoa Udaletik Bergararen alde jardutzea da.

"Hauteskundeetan egongo gara eta ziur gaude herritar askok guran konfiantza jarriko duela"

Zein programa zenuten zehaztuta?

Zenuten ez, daukagu, eta jendeak ezagutzeko aukera izango du. Udalen funtzionamendua errotik aldatu behar da: gestio argiagoa eginez, gaur egun dagoen planifikaziorik eza gaindituz, eta herritarren parte-hartzea bermatuz. Bestalde, arlo ikusituen ditugun beharrak ere zehaztuta ditugu, eta horiek ere herritarren eskuetan egongo dira.

Ezin aurkezteak zelan eragingo du Udaleko jardunean?

Esan bezala, gure asmoa Udalean parte hartzea da. Kontua da besteak zelan bermatuko duten hori. Orduan, galdera hori beste batzuei egin beharko zeniekete.

Ze esango zenieke herritarrei?

Batetik, ezinbestekoa dela Udalean azken urteotan egin den gestio txar-txarrarekin bukatzea; bestetik, Euskal Herriak bizi dituen erasoak eteteko aukera bakkera planto egitea dela, eta bi gauza horiek lortzeko aukera paregabea dela hauteskunde hauek Bergara Aurrera.



PSE-EE

Francisco Javier Garai

ELGETA / 45 URTE / LANGILEA

Lehen aldia da Francisco Javier Garai alkatetzarako aurkeztu dena. Hamabost urte inguru daramatza Alderdi Sozialistan eta 2000ko urria ezker zinegotzi da Udalean; orduko zinegotziak kargua utzi zuenetik. Etxebizitzek, hezkuntzak eta aparkalekuek kezkatzen dute gehien PSE-EEko alkategaia.

Zer-nolako aurreikuspenak dituzue maiatzeko hauteskundetarako?

Daukagun zinegotziari eutsi egingo diogu uste dugu eta litekeena da beste bat ere lortzea. Hortik gora pentsatzea ametsetan egitea izango litzateke.

Udal talde batek ezin aurkezteak izango du eraginik zuegan?

Ez dut uste. Uste dut botoa emango diguna gure betiko jendea izango dela. Gainera, kontuan izan behar da talde bat kanpoan geratu dela, baina berri bat ere bada goela: Aralar, hain justu ere. Eta nik uste dut hainbat bergarar hortik joango dela.

Dena dela, aurkezten den lehenengo aldia izanik, ikusteko dago zelako harrera izango duen, zein jende motak eman go dion botoa.

Eta herrian, oro har izango du eraginik?

Bai. Esan daiteke EAJrekin txandaka izan duela alkatetza ezker abertzaleak. Boto asko jaso izan ditu hemen. Orain boto-emaille horiendako hutsunea

dago. Akaso, boto horietako batzuk EAJ/EARA joango dira.

Zein dira zuen alderdiaren kezka nagusiak Bergarari dagokionez?

Etxebizitza da galetako bat. Babestutako etxebizitza gehiago egin beharko liratekeela uste dugu, jende gaztearen dako, batez ere, etxe libreen prezioa izugarria delako. Gainera, uste dugu etxebizitzaren gaia ia alderdi guztiek sartuko dutela hauteskunde-programan.

Kezkatzen gaituen beste gai bat hezkuntzarena da. Bergara atzeratu geratu da: Institutuak eta Lanbide Heziketak eskaintakoak dira egin daitezkeen ikasketak nagusiak; unibertsitateak, berriz, Arrasaten daude. Bergarak ere merezi du zerbait gehiago.

Bi urtetik gora daramatzazu Udalean. Zer deritoxozu bertako kudeaketari?

Orokorrean nahiko gestio ona izan dela uste dut. Hainbat gauzatan ez gara ados egon, eta beste batzuetan nahiko kontra, baina orokorrean gestio ona izan da.

"Daukagun zinegotziari eutsi egingo diogu eta litekeena da beste bat lortzea"

Bergarako udalari buruzko euren ikuspegia ezagutzeko asmoz



PP

Angel Santano

GASTEIZ / 46 URTE

Angel Santano gasteiztarra Arabako Batzar Nagusieta-ko batzarkidea da eta PP alderdiaren alkatetzarako hautagaia da Bergaran. 1999an PPK lehen aldiz lortu zuen Bergarako Udalean ordezkari bat izatea. Maiatzaren 25eko hauteskundeetan zinegotzi bat baino gehiago lortzea da Santanoren ilusioa.

PPk gogor egin du AuBren zerrendak legez kanporatzeko.

AuBren eta Batasunaren, EHren edo Herri Batasunaren oinordeko plataformak ETArekin adar politikoa dira eta bazen ordua euskal erakundeetarako kandidaturetatik kanpo geratzeko. Nahiz eta zenbaitzuek zuriki salatu hori, errealitatea hor dago. Lege baten oinarritutako sententzia juridikoa batek ETArekin hiltzaileak hauteskontzietan agertzea eragozten du. Egoera zapuztea baino gehiago, sententzia horrek giroa argitu dela esango nuke.

Zeintzuk dira PP alderdiaren lehentasunak Bergaran eta Debagoienean?

Debagoienak komunikaziorako arazoak ditu eta, gainera, industria konbertsioak zigortutako eskualdea da. Zuzenena herri bakoitzaren arazo larrienak aztertzea eta horiei irtenbidea topatzea da.

Udalan ordezkari-tza duten alderdiek azken agintaldian PP albo batera gelditu dela salatu dute.

Kritika egitea oso erraza da, baina Euskadik bizi duen egoerak ez du laguntzen Udalan jardura normala egiteko. Alderdi abertzaleek ere zerikusia daukate horretan. Udal gobernu-ko zinegotzien babesik ez dugu izan eta gure lana egiteko trabak besterik ez dugu izan. Esate baterako, behin eta berriz osoko bilkuretan aldi bateko itzulpen zerbitzua izatea eskatu dugu, baina ez dugu lortu.

Zein da zuen boto aurreikuspena?

Betiere zaila da aurreikuspenak egitea, are gehiago politikan. Hala ere, aurreko hauteskundeetan PPK lehen aldiz zinegotzi bat lortu zuen Bergaran eta aurreko emaitza horiek errepikatzea edo hobetzea nahi genuke.

Zeintzuk dira zuen programaren ardatz nagusiak?

PPk herritarren beharretara egokituko den Udal baten aldeko apustua egiten du. Bergararen interesen alde lan egin nahi dugu, jakinezko norabidea ez duten bestelako proiektuak baztertuz.

“PPk herritarren beharretara egokituko den Udal baten aldeko apustua egiten du”



IU-EB

Andres Díez

BERGARA / 45 URTE / CORREOS-KO LANGILEA

1972a ezkerko Euskadiko Alderdi Komunistako kide, gaur egun IU-EBko Euskadiko presidentziako kide eta PCE-EPK-ko antolaketa arduradun da. 1995 eta 1999ko udal hauteskundeetan IU-EBko zerrendaburu izan zen eta datorren maiatzaren 25ean orduan boto gutxiagatik lortu izan ez zuten zinegotzia izatea da helburua.

AuBren zerrendak legez kanporatzeak hauteskunderen aurreko giroa zapuztu du. Zer-nolako ondorioak izango ditu horrek?

Indar politiko baten legez kanporatzea sistema demokratiko baten aurkako eraso onartezina da, gizartearen sektore bati erakundeetan parte hartzeko eskubidea ukatzen zaiolako.

Zein da zuen boto aurreikuspena maiatzaren 25erako?

Udalbatza berriaren ordezkari izatea da gure helburua. Garai txar bat jasan ondoren, azken emaitzek IU-EBren gorakada frogatzen dute eta horrek maiatzaren 25eko hauteskundeetan baikor izateko motiboa ematen digu.

Udal politikan esperientziarik ez izatea handicap-a da?

Ziurrenik *handicap*-a izan daiteke, baina hori gaituzteko gaitasuna dugula uste dut. Ilusiorik eta lan egiteko gogorik ez zaigu falta.

Zeintzuk dira zuen alderdiaren lehentasunak Bergaran?

Herritarren partaidetza bultzatzea, zerbi-

tzu publikoen pribatizazioa gelditzea eta gastu soziala handitzea.

Udal politikaren diagnostiko bat egingo zenuke, baliabideei eta gestioari dagokienean?

Udaleko gestioa gardena izatea nahi dugu eta horretarako herritarren partaidetza ezinbestekoa da. Hori dela eta, aurrekontuak parte-hartzaileak izatea nahi genuke.

Udalak esku artean dituen proiektuen artean zeintzuk dira lehentasunekoak zuendako?

Udal ordezkari izatea lortzen badugu, gure lehentasunak biztanleriaren gehiengoak dituenak izango dira, eta etxebizitzaren gaiarekin hasiko ginateke.

Labur-labur zein mezu bidali nahi zenieke boto-emalderi?

IU-EBk ekonomiko eta ekologikoki jasangarria izango den esparru soziala landu nahi du Bergaran. Era berean, herritarrek herriaren gestioan eta kontrolean parte hartzea lortu nahi dugu.

“Udaleko gestioa gardena izatea nahi dugu eta herritarren parte-hartzea bultzatu nahi dugu”



ARALAR

Ainhoa Larrañaga

BERGARA / 30 URTE / ABOKATUA

Aralar talde berria dugu udal hauteskundeetan. Ainhoa Larrañagak berak ere politikagintzan jardun gabea dela azaldu du: “Baina bai, aldiz, herrigintzan; eta hor jasotako esperientzia orain Udaleko gestioan aplikatu nahi dugu”. Maiatzaren 25ean bi edo hiru zinegotzi lortzea espero dute.

Lehenengoz aurkeztuta, ze aurreikuspen duzue?

Egia esan, ez da egoerarik onena. Ez dugu horretan suerte handirik izan. Egoera ez da naturala, oso gogorra da; orduan, oso zaila da aurreikuspena egitea. Hala ere, uste dugu jende asko dagoela Aralarrek eskatzen duen proiektuaren zain. Bizpahiru zinegotzi eta, zergatik ez, jende artean piztu duen ilusioarekin lista botatuena izan daiteke.

Zelakoak dira Aralarri botoa emango dioten herritarrak?

Aralar ezkerria, abertzalea eta independentista da; hiru zutabe nagusi horien atzean dagoen jendea izango da. Gure iritziz, hor badago espazio garrantzitsu bat azkenaldian bere erreferente politikoa galdu duena edo argi eta garbi inoiz izan ez duena. Jende horrek duen hutsunea betetzera dator Aralar.

Zer die emateko Aralarrek herritarrei?

Hasteko aurpegi berriak eta lanerako ilusio eta gogoia daukatenak. Inoiz ez gara politikagintzan ibili (ni ez, be-

hintzat), baina bai herrigintzan. Auzo elkarte, euskara elkarte, kirol elkarte... horietan dauka esperientzia gure jendeak eta orain udal gestioan aplikatu nahi dugu hor jaso dugun esperientzia. Udaletik aurrera eraman nahi den edozein proiektuaren ezinbestekoa da kontsultak egitea eta alor bakoitzean diharduen gizarte eragile, auzo alkate, bizilagun elkar-te edo dagokionari kontsulta eginez erantzutea. Hau da gure oinarrietako bat: herriarendako herriarekin lan egitea.

BA ezingo da aurkeztu. Eraginik izango du horrek zuengan?

Bai; ez aurkezteak ez du izateko arrazoirik, ez da batere egoera justua eta desabantaila egoera batetik ezin dira udal hauteskunde hauek baloratu. Aralarrek eta beste alderdi politikoei lortuko dituzten emaitzak zailak izango dira baloratzen. Egoerak ez du uzten irizpide politiko garbietan oinarrituta bakarrik botoa ematen, jendeak beste parametro batzuk hartuko ditu kontuan botoa emateko orduan.

“Aralar ezkerria, abertzalea eta independentista da; holako jendeak emango digu botoa”



BKE-REN ZOZKETA

Bergara Kirol Elkarteak apirilean egindako zozketan Maximo Alberdi izan da irabazlea. 1.895 zenbakiari tokatu zitzaion saria eta Maximok saski ederra eta Xamartin kirol dendarako erosketa bonoa eskuratu ditu. Argazkian, Maximo eta *Piti* Unamuno BKEko ordezkaria.



JARDUN ELKARTEKO GAZTETXOAK ARRATEN

Jardun Euskara Elkarteko gaztetxoek Arraten pasatu zuten aurreko aste bukaera. Txapligu taldean diharduten 9 eta 11 urte arteko 17 gaztetxo izan ziren Arrateko aterpetxean egindako egonaldian. Euren batera Idoia Retegi, Aitziber Muxika, Aritz Alustiza eta Eli Alberdi begiraleak egon ziren. Eguraldia lagun, Azurtza auzora mendi irteera egin zuten eta, horrez gain, jolasekin eta bestelako ekintzekin primeran ibili ziren.



ESTATU BATUETATIK BERGARARA

Estatubatuar talde bat San Pedroko organoa ikusten egon zen egubakoitzean. Taldean hainbat musika irakasle eta organo jotzaile zeuden, eta Euskal Herriko organoak bisitatzeko egin dute bidaia. Besteak beste, Iruñean, Donibane Lohizunen, Tolosan, Azkoitian eta Bergaran egon dira. Esteban Elizondo organo jotzailearen laguntza izan dute eta San Pedroko organoa ikusteko bisitan Iñigo Alberdi izan zen zeremonia-maisua. Alberdik hainbat pieza eskaini zien eta jarraian hainbatek ez zioten uko egin organoa jotzeko tentazioari.

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

MINGAINARITIRAKA



Martin Garmendia

UDAL TXISTULARI BANDAKOAK

Martinek Albaitaritza ikasketak egin zituen Zaragozan eta azken bost urteotan Antzuolako Balzers Elay lantegian dihardu lanean. Orain dela lau urte txistua ikasten hasi zen eta urtarri-la ezkeru silbotea jotzen du Udal Txistulari Bandan.

Zelan hasi zinen txistua jotzen?
Beti izan dut ikasteko gogo: solfeoa ikasi nuen mutikotan, baina gero ezin izan nuen musika ikasketekin jarraitu.
Zelako piezak atsegin dituzu?
Alaiak gustatzen zaizkit: *Trintxerpe, Antzuola, Itxaropena...*
Norbait haserretu zaizue domeka goizeko kalejirekin esnatzearren?

Ez dakit, baina norbait beharbada haserretuko zen...
Txistuaren doinuak, zein egoeratarako egokien?
Ekitaldi ospetsutarako eta jaietarako.
Txistuak alboan danbolina behar du derrigor?
Ez, baina bata bestearen osagarri da.
Norbaiti txistuak bidaltzekotan, nori?
Prestige-ko egoerari behar bezalako irtenbidea eman ez diotenei.
Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
Bizikletan ibiltzea eta paseatzea.
Nork irabaziko du Giroa?
Aitor Gonzálezek.
Mendizalea ere bazara. Inguruko mendi bat?
San Donato.
Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?
Printze txikia (Saint-Exupéry)/Indiana Jones (En busca del arca perdida)/Amaral.
Irratia ala telebista? Gustuko saio bat?
Telebista. *Planeta azul* (ETB-2) saioa dut gustuko.
Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Lasai bizi izateari.
Hauteskunde kanpaina jarraitzen duzu?
Oso gutxi.
Alkate berriari zer eskatuko zenioke?
Zergak murriz ditzan eta kirolguné berria laster amai dezan.
Nora joango zinateke udako oporretan?
Alaskara, animaliak ikustera.
Animaliarik gustukoena?
Asko ditut: hartza, esaterako.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

LUCIO FERNÁNDEZ DE RETANA

40 URTE / LANGILEA / MARTORELL-EN (BARTZELONAN) BIZI DA

“Ez daukat planik epe laburrera begira, eta hementxe jarraituko dut, gustura nago-eta”

EDU MENDIBIL

Urtetan Oilagorra tabernan lan egin zuen Luciok, 1999an Bartzelonara alde egitea erabaki zuen arte. Ostalaritzako negozio bat zabaltzeko asmoarekin joan zen Bartzelonara, baina gauzak ez zitzaizkion nahi bezala irten: “Zorte txarra izan nuen, dirua ere galdu nuen eta ideia hura baztertu beharrean aurkitu nintzen. Atsekabe handia hartu nuen, egia esateko. Ia-ia hutsetik hasi nintzen berriro. Taberna baten lan egin nuen eta pixkanaka-pixkanaka aurrera egin nuen. Gero, urte eta erdiz garraio enpresa baten lan egin nuen. Europa osoan zehar ibili nintzen kamioiarekin. Europa ekialdeko herrialdeetara joaten nintzen askotan. Benetan lan nekagarria zen hura”.

Gaur egun Martorell herrian bizi da Lucio. Lanbidez aldatu zuen eta 2001eko uda ezkeru Martorell Ceramic enpresan dihardu. Hark azaldu digunez, eraikuntzarako era guztietako materialak saltzen dituzte eta biltegian erakusketarako eta salmenta zuzenerako eremuak daude. Besteak beste, bainurako altzariak, zorueterako zein paretetarako materialak eta etxerako beste-lako osagarriak saltzen dituzte. Zera esan digu Luciok: “Enpresa berria da eta lan aldetik ondo gabilta. Behin betiko kontra-

“Aisialdian lasai ibiltzea gustatzen zait; pintatzea eta egurra lantzea atsegin dut”

tua egin didate eta gustura nago oraingoz”.

Martorell Bartzelona hiritik 20 kilometrora dago. Bergaratik alde egin zuenean Bartzelonan bizi izan zen Lucio. Orain, errentan hartutako etxe baten bizi da, Martorellen. Hiri industrial da, eta Seat auto enpresak hantxe dauka egoitza nagusia. Gaur egun 20.000 biztanle inguru ditu Martorellek.

Lanetik aparte gauza gutxi egiten dituela diosku Luciok: “Ez daukat denborarik ez gogorik kalera irteteko. Noizean behin Bartzelonara joaten naiz, baina nahia-godo dut lasai-lasai ibiltzea. Kostaldera ere joaten naiz batzuetan, baita mendira ere, Girona eta Lleida aldera. Gustuko dut Pirinio aldera joatea,

leku benetan ederrak daude-eta. Bestalde, aisialdian-eta pintatzen eta egurra lantzen jarraitzen dut. Denbora dudanean horiek dira nire zaletasun handienak. Beti gustatu izan zait artelanak egitea”.

Leku askotako jendea bizi da Martorellen, mundu zabaleko herrialdeetakoak. Hala ere, lagun berriak egitea ez da hain erraza, Lucioren esanetan: “Ezagun asko ditut, baina benetako lagunak esku bateko atzamarrekin zebatu daitezke. Edozelan ere, gustura nabil hemen. Oraingoz ez daukat planik epe laburrera begira, eta hementxe jarraitzeko asmoa daukat. Etorkizunean ikusiko dut gauzak zelan doazen”.

Bartzelonan eta inguruan euskaldun asko dago eta Bergarako jendearekin ere topo egin duela esan digu Luciok. Ahal duen bakoitzean Bergarara etortzen da. Aste Santuan izan zen Bergaran azken aldiz: “Oporrak dauzkanedean Bergarara joateko aprobetxatzen dut.

Kontua da hara noanean jende gehienak alde egiten duela... Gabonetan familia eta lagunak bisitatzeko izan nintzen. Hango giroa eta mendiak sumatzen ditut faltan”.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Plater konbinatuak
Oilasko erreak eramateko



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

FUTBOLA

Rachael Olabarria: "Espainiako Selekzioan jokalaria euskaldunak gara nagusi"

Eibartarrak taldean dihardu eta aurtan Euskadiko eta Espainiako selekzioekin jokatzeko deitu dute

EDU MENDIBIL

Rachael Olabarriak Euskadiko Selekzioarekin jokatu zuen domekan, Leioan, Valentziaren aurka, 17 urtetik beherakoa Espainiako Txapelketan. Bestalde, Europako Txapelketako lehen fasea jokatu zuen Espainiarekin, Aste Santuan, Ingalaterran.

Autonomien Arteko Txapelketako azken fasera lau talde iritsi ziren: Kanariak, Valentzia, Andaluzia eta Euskadi. Euskadik kanariarrei irabazi zien finalerdietan (2-1), eta 2-3 galdu zuen finala Valentziaren kontra. Rachaelek gol bat egin zuen finalean, baina Valentziak merezimenduz irabazi ziela uste du: "Domekan ez genuen partidu onik egin. Valentziarrek, berriz, lau gol aukera izan zituzten eta hirutan asmatu egin zuten. Finaletan presioa gainditzea kosta egiten zaigu eta valentziarrek gu baino hobeak izan ziren, besterik ez".

Rachaelek 18 urte ditu eta Eibartarrak taldean dihardu, Euskal Herriko Liga Nazionalean. Hortik gora Superliga dago (Athleticek irabazi berri duena) eta beherago erregional maila. Liga amaitzeko bi jardunaldi besterik ez da geratzen eta Eibartarrak sailkapeneko laugarren tokian dago. Rachaelek zera diosku:

"Datorren denboraldian taldea Eibarrek hartuko duenez, mailaz jaitsiko gara, Taldez aldatzeko asmoa daukat. Oraindik ez dakit non jokatuko dudan, baina Gipuzkoan jarraituko dut, eta Añorgarekin edo Oiartzunekin jokatu nahi nuke". Rachaelek aurreko aldean jokatu du eta golak egiteko erraztasuna dauka: "Normalean ni izaten naiz puntako aurrelari bakarra. Bi jokatzeko-tan nahiago dut eskuman jokatu, ezker hanka lurrean jartzeko bakarrak daukat-eta". Aurtengo denboraldian gustura ibili dela dio, batez ere Ligako lehen itzulian. Liga amaieran nekea nabaritzen du: "Partidu asko izaten dira urtean eta atsedean hartzeko ez dut apenas aukerarik izan".

EUROPAKO TXAPELKETA

Euskadiko eta Espainiako selekzioekin jokatu du Rachaelek aurtan. Apirilean Nacho Querada Espainiako hautatzaileak deitu zion: astebete eman zuen Burgo-

sen 19 urtetik beherako selekzioarekin eta Aste Santuan Europako Txapelketako lehen fasea jokatu zuen Ingalaterran. Hiru partidu jokatu zituen Rachaelek Espainiarekin: Danimarkari 4-1 irabazi zioten, Ingalaterraren aurka bana egin zuten eta Irlandari irabazi egin zioten (3-1). Ingalaterrakoa esperientzia ederra izan zen Rachaelendako: "Joatearekin bakarrak konformatzen nintzen, eta Europako talde onenen kontra jokatzeko benetan polita izan zen. Ez nuen askorik jokatu, baina oso gustura ibili nintzen. Belaunetik erdi lesionatuta nabil aspaldian, eta ondo jarri nahi dut denboraldi amaierarako". Espainiak Europako Txapelketako azken fasea jokatu du uztail amaieran Alemanian, eta hara joateko itxaropena dauka.

Bien bitartean selektibitate azterketa prestatzen dihardu. Datorren urtean SHEE (IVEF) ikasketak egin nahi ditu, eta Eskoziara ikastera joatekotan, Kirol Zientziak ikasiko du han. Nesken futbolak azkenaldian izugarriko bultzada izan duela eta Estat mailan jokalaria onenak Euskal Herrian daudela dio Rachaelek: "Espainiako Selekzioan euskaldunak gara nagusi, eta Athleticek ere izugarriko taldea osatu du. Gauza asko aldatu dira, eta nesken futbolak indarra hartzen dihardu".

"Gauza asko aldatu dira, eta nesken futbolak indarra hartzen dihardu gurean"



Rachael Olabarria, Espainiako kamisetarekin.

Ipintzako Futbol Txapelketa datorren eguenean hasiko da

E.M.

Ipintzako Futbol Txapelketari datorren eguenean, maiatzaren 22an, hasiko da. Hainbat mailatan banatuta 49 talde izango dira lehian. Bostehun bat jokalarik hartuko dute parte txapelketan.

Aurreko urteotan moduan, antolatzaileek hainbat maila bereiztu dituzte. Ohikoa den moduan, Futbol 11ko Txapelketak izan du erantzun onena eta aurtengo aldian 21 taldek hartuko dute parte. Maila horretan lau multzo egongo dira: hiru multzo bosna taldekoak eta laugarren multzoa sei taldekoa. Txapelketako lehen partiduak datorren maiatzaren 26an jokatu dira.

BETERANOAK ETA NESKAK

Horrez gain, beteranoen txapelketan (30 urtetik gorako jokalariei zuzenduta) zortzi talde lehia-



ARTXIBOA

Argazkian iazko senior mailako nesken txapelketako finalistak.

tuko dira datorren eguenean aurrera.

Bestalde, nesken futboleko hiru maila bereiztuko dira: maiatzaren 23tik aurrera senior mailan bederatzita taldek hartuko dute parte, B mailan lau talde eman

dute izena eta, azkenik, A mailan beste zazpi talde egongo dira.

Beteranoen eta nesken partiduetan taldeek zazpi jokalaria aterako dituzte zelaira, partiduak Ipintzako zelai erdi baten jokatu dira-eta.

FUTBOLA

Athletic-Racing ikustera joateko irteera antolatu du Bergarako Peña Athleticek

Begarako Peña Athleticek maiatzaren 25ean Athletic-Racing partidura joateko irteera antolatu du. Izenematea Toki-Ona upeltegian (nagusiek 30 euro eta 16 urtera artekoek 12 euro). Irteera 11:00etan izango da. Peña Athleticek urteko bazkaria egingo du hilaren 31n San Martzialan. Izena Toki-Onan eman behar da.

MENDIA

Pol-Poleko gaztetxoaren irteera hilaren 25ean eta Gorla Alpinokoen aldeko meza domekan

Pol-Poleko gaztetxoaren irteera antolatu du maiatzaren 25ean. Astranara eta Ribara (Kantabria) joango dira. Irteera 08:00etan frontoetik. Txartelak (10 euro) Pol-Pol tabernan eskura daitezke. Bestalde, Gorla Alpinok hildako bazkideen aldeko meza iragarri du domekan, hilaren 18an, Elosun, 10:30ean.

PILOTA

Bergara KEko Pilota Sailak buruz buruko finalerako bi sarrera zozketatu ditu

Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan, 1.095 zenbakiaren jabeak buruz buruko pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratuko ditu. Era berean, Infernukua tabernan lau lagunendako afaria eta 200 euro 2.767 zenbakiarendako izan dira.

Iker Azagirre Bergara Hiriko finalerako sailkatu da

E.M.

Esnaolarekin bikotea osatuz, Iker Azagirre pilotari bergarra Bergara Hiriko finalerako sailkatu zen martitzenean, Aspe eta Errarteri 22-13 nagusitu. Igor Gutiérrezek, aldiz, galdu egin zuen Erroizenearekin batera Martínez de Irujo-Okiñenaren aurka, 12-22.

Iker Azagirrek eta Esnaolak 22 urtetik azpiko finalerako txartela lortu zuten. Biek ere partidu bikaina jokatu zuten eta bergararrak tanto politak egin zituen aurreko koadroetan. Martitzenean Udal Pilotalekuan bildutako pilota zaleek partiduarekin gozatzeko aukera izan zuten.

Nagusien partiduan, berriz, Aspe enpresarekin debutatzeaz dagoen Martínez de Irujo izan zen izarra. Berak eta Okiñenak 22-12 irabazi zieten Igor Gutiérrezi eta Erroizeneari. Erroizeneak Enrike Huiji ordezkatu zuen martitzeneko finalerdian. Beraz, iazko txapeldunek, Huizik eta Gutiérrezek, ezin izango dute Bergara Hiriko txapela berriro eskuratu.

Datorren martitzenean, hilak 20, Bergara Hiriko beste finaler-



Esnaolak eta Azagirrek finalerako txartela lortu zuten martitzenean.

diak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean: 22 urtetik azpikoetan Arretxe-Muxika eta Rete-gi-Urrizalki bikoteek neurtuko dituzte indarrak, eta nagusietan, Ander Muruguza bergararrak eta Zapirainek Eguzkitzaren eta Erauzkinen kontra jokatuko dute.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Bergara KEko pilota sailak Aretxabaletaren aurka jokatuko du bihar, zapatua, Aretxabaletako pilotalekuan, 19:00etan, Herri

Arteko Txapelketan. Aretxabaletari irabaztekoan, Orío-Azpetia kanporaketako irabazlearen aurka jokatuko du Bergarak.

Deba Arroko Txapelketan, Oñatiren aurka jokatuko du Bergarak. Kadete eta senior mailako partiduak izango dira eguaztēnean Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Bergarako kadete mailako bikotea finalerdietarako sailkatuta dago. Aitor Osak, Xabier Azurmendik eta Jon Larrañagak jokatu izan dute kadete mailan.

E.M.

Bergara KEko eskubaloitako taldeek Kopa Txapelketako partiduak izango dituzte aste bukaeran. Bihar, zapatua, senior mailako nesken taldeak Zarautzen aurka jokatuko du kiroldegian, 18:00etan. Ondoren, gazte mailako mutilen taldeak Urola hartuko du, 19:30ean. Eta, azkenik, domekan, senior mailako mutilen Arrate izango dute bisitari Labegaraietako kiroldegian, 12:15ean.

Aurreko jardunaldian senior mailako mutilek Ereintzaren aurka galdu zuten, 38-27; senior mailako neskek ezin izan zioten Elgoibarri irabazi (13-36) eta gazte mailako mutilek Legazpin irabazi zuten, 19-25.

JOKATZEKOAK

Futbolari dagokionez, bi partidu jokatuko dira Ipintzan asteburuan: Bergara-Dunboa (kadete maila) zapatuan 16:00etan eta Bergara-Dunboa (bigarren mailako erregionala) domekan 16:00etan.



ESKUBALOI SAILA

Gazte mailako eskubaloitako taldeak Urolaren aurka jokatuko du zapatuan.

Kadete mailako nesken taldea Kontxako finalean

E.M.

Bergara KEko kadete mailako nesken taldeak Donostiako Kontxako finala jokatuko du bihar, zapatua, Altxakoak taldearen aurka, 11:00etan. Txapelketa bikaina burutu ondoren, bergararrak finalera iritsi dira eta bihar txapeldunen trofeoa eskuratzen ahalginduko dira.

Kadete mailako neskek udazkenean ekin zioten txapelketari eta ikusten denez, ondo baino hobeto moldatu dira Kontxako hondartzara. Probitzia guztiko taldeekin lehiatu dira eta bergararrek maila bikaina azaldu dute. Bihar txapelketa irabaztea amaiera ezin hobe litzateke.

ARANZADI IKASTOLAKOAK, GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Aranzadi Ikastolako nesken futbol taldea Gipuzkoako Eskola Arteko txapelduna dugu. Joan zen zapatuan Donostian, Herri-rako zelaian jokatutako finalean, Aranzadiko neskek 2-1 irabazi zioten Orereta taldeari. Nerea Madariagak eta Ainhoa Alonsok sartu zituzten bergararren golak. Mikel Gotzon Fernández *Popek* zuzentzen duen taldeak Euskadiko Txapelketa jokatuko du maiatzaren 24an, Eibarko Unbe futbol zelaian, 10:00etan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako txapeldunek elkarren aurka neurtuko dituzte indarrak Euskadiko txapelduna zein den erabakitzeko.



ARTXIBOA

Bergarak Altxakoak taldearen aurkako finala izango du bihar Kontxan.

LABEGARAIETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN

- 09:00: Argandolas-Mongatx. Aterpe
- 10:00: Pagomendi-Aterpe. A Ze Flaxa
- 11:00: Bedarreta-A Ze Flaxa. Bayer
- 12:00: Bayer-Pirulotarrak. Artusamak
- 13:00: Errotagain-Artusamak. Pirulot.

OHARRA

Bayer-Pirulotarrak partidua kopa txapelketakoa da eta gainerakoak, ligakoak.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

San Pedro, 9 - Teléfono, 761051

R.S.I. 209374-55

BERGARARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARARA**
943 76 10 34



Bergara aldatzeko sasoia da

Lizarra Garazi da bidea

*Elkarrizketa
Suetona
Autodeterminazioa*

*Pertsona guztiak,
proiektu guztiak
eta ideia guztiak.*



ARALAR

*Zure
botoa*

Etxerako ederrena, Zanguitun

Eskulan eta arte ederretako
produktuak ere baditugu!



**%20ko
deskontua
etxerako
pinturetan**

**Koloreak
sortzeko
makina**
Paretetarako,
zorurako,
altzariak
margotzeko...



ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

deco-tex ZANGUITU alfonbrak


Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Parket flotatzailea* Sintasola* **Moketak***

Paper pintatuak

Alfonbrak Alfonbrak neurrira **Funda nordikoak**
Edredoiak **Kortinak** **Toailak** **Izarak**

*Salmenta eta etxean ipintzea.



ARTXIBOA

Ez da lehen aldian herrian horrelako moda desfileak egiten direna. Bihar udaberri-udako jantzi berriak aurkeztuko dituzte.

Jam aretoan izango da, 22:00etan, eta herriko bederatzi dendak hartuko dute parte

Emakumeen futbolaren aldeko moda desfilea bihar

MONIKA BELASTEGI

Hainbat futbolzalek herrian emakumeen futbola bultzatzeko moda desfilea antolatu dute. Desfilerako sarrerarekin aterako duten dirua zeregin horretarako bideratuko dute. 80 lagun inguruk desfilatuko dute, eta bederatzi dendatako jantziak erakutsiko dituzte.

Herriko futbolzale batzuei bururatu zitzaizen desfilea antolatzea. Hala, herrian emakumeen futbola bultzatzeko asmoa dute eta sarrerarekin jasoko duten dirua horretara bideratuko dute.

Herriko hainbat dendarekin harremanetan jarri eta bederatzik utziko diete arropa biharko

desfilerako; guztiak kalerako arropa duten dendak dira, batzuk nagusiendako arropak eta beste batzuk umeendako arropak. Honako hauek dira, hain justu ere: Maya, Cristina, Baster, Zubikua, Jolas, Xuxu, Junbiju, Subijai eta Markeliñe. Hala, herriko denda horiek udaberri-uda denboraldi berrirako duten eskaintza ikusteko aukera egongo da biharko desfilean.

HERRIKO 80 LAGUN INGURU MODELO LANETAN EGUN BATEZ

Arropa hori guztia erakusteko herriko 80 lagun inguruk jardungo dute modelo lanetan. Erdiak, gutxi gorabehera, 7 eta 11 urte arteko gaztetxoak dira eta beste erdia, 13tik 20ra arteko gaz-

teak. Horietatik guztietatik neskek 50 inguru dira eta mutilak, berriz, 30en bat, arduradunek esandakoaren arabera.

MODA DESFILEAREN ONDOREN DISKO FESTA

Moda desfilea bihar, zapatua, izango da, 22:00etan, Jam aretoan. Gainera, antolatzaileek azaldu dutenez, Jameko arduradunek doan utzi diete aretoa desfilea egiteko. Sarrerari dagokionez, egunean bertan salduko dituzte, leihatilan, eta prezioa hiru eurokoa da.

Horrez guztiaz gainera, moda desfilea bukatu eta gero disko festa egongo dela aurreratu dute antolatzaileek, zapatuko gaua girotzeko asmoz.

Gaur hasiko da Jolasleku Ibiltaria, Jardunen eskutik

MONIKA BELASTEGI

Lau saio egongo dira eta gaur, egubakoitza, izango da lehena, 17:00etatik 19:00etara, Simon Arrietan. Herriko toki jakin batzuetan egingo dute Jolasleku Ibiltaria; bereziki umeak eta haien gurasoak edo zaintzaileak batzen diren guneeetan. 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta ahozkotasuna lantzea du helburu.

Hurrengo Jolasleku ibiltariak honako lekuetan izango dira, ordu berean: maiatzaren 30ean, Fraiskoizuri plazan; ekainaren 13an, Espoloian; eta ekainaren 20an, Usondo parkean.

Bestetik, Jardunek gogorazi nahi du Olinpiadak bihar, zapatua, hasiko direla. 9 eta 12 urte artekoendako dira eta 14 taldek eman dute izena. Bihar Altxorraren bila lehiatuko dira, 16:00etan, San Martin plazan.



JARDUN

Umeak eta haien zaintzaileak batzen diren guneeetan egoten da Jolasleku Ibiltaria.

LABUR

Joseba Ramírezek 'Bertso musikatuak' emanaldia egingo du egunean Zabalotegin

Udal Euskaltegiak antolatu du eta egunean, hilaren 22an, izango da, 19:00etan, Zabalotegi aretoan. Joseba Ramírezen saioan, Xalbadorren, Sarasua anaien eta beste hainbat bertsolari ezagunen bertso musikatuak entzuteko aukera egongo da, doan.

Irene Martínezen olio erakusketa Nahikari tabernan hilabete bukaera arte

Irene Martínez bergararrak olio erakusketa jarri du Nahikari tabernan. Hamabost oliok osatzen dute erakusketa eta maiatzaren bukaera arte egongo da ikusgai, tabernako ordutegian.

Gabero irabazle Habanera Lehiaketan

MONIKA BELASTEGI

Torrevejako Infantil eta Gazte Mailako IX. Habanera Lehiaketa Nazionalean jaso du lehen saria Gabero abesbatzak; gazte mailan, hain justu ere. Lehiaketa hiru egunez izan zen, maiatzaren 1ean, 2an eta 3an, eta Estatu osoan hainbat talderekin lehiatu zen.

Orain dela bederatzi urte egin zen lehenengoz Torrevejako lehiaketa, eta urteek aurrera egin ahala gero eta izen eta maila handiagoa hartzen dihardu.

Lau habanera abestu zituen Gaberok lehiaketan: hiru abes-

batzak berak aukeratutakoak eta bat derrigorrezkoa. Hauek aukeratu zituen: Tomas Garbizuren *Navegaremos los dos*, David Azurtzak moldatutako *Loriak udan ihintza bezala* herrikoia eta Jose Maria González Bastidak moldatutako *Satararra* herrikoia. Derrigorrezkoa, berriz, *Cubanita preciosa* herrikoia izan zen.

Gabero abesbatzak 600 euro eta Torreveja herriko oroigarria jaso zituen sari gisa.

Horrez gain, Gabero entzun nahi dutenendako, abesbatzak badu beste emanaldi bat iragarrita: ekainaren 13an, Pasaian.



GABERO ABESBATZA

Gabero abesbatza 14 eta 24 urte arteko 29 lagunek osatzen dute. Goian, Torrevejan zeudela ateratako argazkia.



INFORMAZIOA:
Makina Erremintaren Institutua
Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 74 82 65 - 74 4132.
Faxa: 943 74 41 53
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.imh.es

Eusko Jaurlaritzako
Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.



2003-2004 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

ATEAK ZABALIK

maiatzaren 22an eta ekainaren 5ean,
19:00etan



Egun, enpresek langile tekniko
kualifikatuen behar handia daukate



Izena emateko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne

BERRIAK

Gertu-gertuko
informazioa

Egunero,
14:30ean eta 15:30ean
20:00etan, 21:00etan, 22:00etan eta 23:00etan

Aurkezleak:
Gorka Etxabe
Maidier Osa



**Ikusiko
duzu!**



E, TXO!

GUREGAIK/ IRAKASKUNTZA

Ikasle talde batek webgunea sortu du

AINTZANE IRIZAR

Ikasleek euskaraz ikasteko dituzten oztopoak gainditzen laguntzeaz gain, gazteei interesatzen zaizkien gaiak landuko dituzte orain dela gutxi sortu duten www.ikaskide.com webgunean.

Apirilean sareratu zuen webgune hori ikasle talde batek. Ikasle euskaldunek apunteak, azterketak eta bestelako baliabideak euskaraz lortzeko dituzten zailtasunak ikusita, gune berri hori egitea pentsatu zuen talde horrek.

APUNTEAK LORTZEKO AUKERA

Webgune horrek eskaintzen duen berritasun nagusia da hainbat

ikasketarako apunteak eskaintzen dituela.

Oraingo Informatikako eta Zuzenbideko apunteak besterik ez dago, baina webgunea pixkanaka osatuz joateko asmoa erakutsi dute ikasleok. Gainera, hasiera guztietan ohiko den moduan, hainbat arazo ere badituzte webguneko hainbat orrialderekin.

Apunteez gain, hainbat azterketa eredu ere topa ditzakegu Ikaskideren gunean.

Baina webgunean badaude beste hainbat gairen gaineko kontuak ere: gazteen intereseko hainbat albiste ere topatuko dugu hantxe, baita kontzertu eta jaien agenda eta bestelako hainbat gairen gaineko informazioa ere. Gogoratu helbidea: www.ikaskide.com.



ARTXIBOA

Besteak beste, apunteak euskaraz lortzeko aukera eskaintzen du webguneak.

FELIX UGARTE ITZULPEN LEHIAKETA

Euskal Herriko Unibertsitateak Felix Ugarte XI. Itzulpen Lehiaketarako deialdia egin du. Lanak maiatzaren 30era arte aurkez daitezke.

Filologia, geografia edo historiaren gaineko testuak itzuli beharko dira, argitaratu gabeak, jakina. Jatorrizko testuaren kopia eta euskarazko itzulpena bidali behar dira lehiaketan parte hartzeko.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero, Arabako Campuseko Errektore-ordetzara jo dezakezue, telefono zenbaki honetara: 945 01 30 00. Edo Gazte Informazio Gunera.

ERDIAK BAINO GEHIAGOK LANA AURKITZEN DU

2001ean prestakuntza ikastaroetan parte hartu zuten gazte langabeen %57k lana aurkitu zuten. Horixe dio Lan Departamentuak Egailanen bitartez egindako azterketak. Guztira 10.400 lagunek eman zuten izena Lanerako Prestakuntzarako Programan. Sei hilabeteren barruan emakumeen %55ek eta gizonezkoen %60k lortu zuten lana.

EHU-KO AURREMATRIKULAZIOEK BEHERA

Euskal Herriko Unibertsitateko aurrematrikulazio kopuruak behera egin du, %3. Dena dela, kontuan hartu behar dugu iaz %12 egin zuela behera, eta azkenean, %10 igo ziren matrikulazioak. Kontuan hartu behar dugu, era berean, jaiotze tasak %6,4 egin zuela behera orain dela 18 urte, ikasle horiek jai zirenean, hain zuzen. Denera 13.772 ikaslek eman dute izena EHUko aurrematrikulazioetan.

LOTSABARIK/ Isusko Igartza

“Oso gutxi ligatzen da, eta nik batere ez”

AINTZANE IRIZAR

Oso lotsatia ei da, baina elkarrizketa egitea proposatu eta ordu erdira etorri zaigu; lotsatia, baina saltseroa ere izango da mutil hau! Munde osoa pozik bizi izatea da Isuskoren ametsa.

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gazteondako oso gauza gutxi dago; ekitaldiak antolatuko nituzke, jendea herrian geratu dadin.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Euskararen eta Euskal Herriaren gaineko pegatina batzuk, jaietan batutakoak.

• Tebistako saioren gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Ez dut askorik ikusten, baina, adibidez, *Hotel Glamour* ez zait batere gustatzen, oso aktore txarrak dira; gustukoena, berriz, *The Simpsons*.

• Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?

Politikoak, batez ere; gustukorik, berriz, ez daukat.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gauzez enteratzen den azkenekoa izateak. Besterik ez bada ere, azkenaurrekoa izango banintz...

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Zintotasuna eta konfiantza ematea.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Osasunari eta pozik bizi izateari.

• Zure bertute bat? Eta hutsune bat?

Hori besteek esan behar dute.

• Zelan ligatzen duzue gazteok? Ez dakit; oso gutxi ligatzen da, eta nik batere ez.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?

Beti egia esaten duena, konfiantza ematen didana.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Hirugarren Munduko herrialderen batera, lagunekin.


• Etorkizunerako amets bat? Munde osoa pozik bizi izatea.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoko bigarren maila • **ZALETASUNAK:** Musika eta lagunekin egotea
LIBURU BAT: ‘Robinson Crusoe’, Daniel Defoerena • **FILM BAT:** ‘American history X’ • **MUSIKA TALDEA:** Berri Txarrak • **KIROL TALDEA:** Reala


TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez

INFORMATIKA IKASTAROA




1. HARDWAREA:

Software arazoak daudenean...



...kolpeak hartzen dituen ordenadorearen zatia...



BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein izen du baserri horrek?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1.
Noiz onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia?</p> <p>A/ 2001ean.
B/ 1988an.
C/ 1999an.</p> | <p>2.
Gabero gazte abesbatzak nongo habanera lehiaketa irabazi berri du?</p> <p>A/ Benidormekoa.
B/ Torrevejakoa.
C/ Saloukoa.</p> | <p>3.
Zein taldetan jokatzeko du Rachael Olabarria futbolari bergararrak?</p> <p>A/ Oiartzun.
B/ Athletic.
C/ Eibartarrak.</p> |
|--|---|---|



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ESPE RUIZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Espe!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: 1839an/ Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Hamar arraultza

L 63/73 g.


0,82 €

136 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



“Eskultura kontzeptuala egiten saiatzen naiz, azaldu nahi den ideiarri garrantzia emanez”



ESKULTORE BERGARARRAK GAUR

Xabier De Zerio

EDU MENDIBIL

Xabier De Zerio (Bargota, Nafarroa, 1948) 1980aren inguruan hasi zen eskultura lantzen. Irakaskuntzan (Espresio Artistikoaren espezialitatea egin zuen) lan egitera etorri zen Bergarara 1967an, eta eskulturarekin hasi baino lehen pintura, argazkigintza edo zeramika landu zituen. Batez ere, burdina, egurra eta harria erabiltzen ditu eskulturetan: “Egurra lantzea oso atsegin dut, material goxoagoa delako, lantzeko errazagoa. Estiloari dagokionez, Euskal Eskola Tradizionalaren jarraitzailea diote batzuek. Eskultura kontzeptuala deritzona egiten saiatzen naiz; hau da, erreprezentazioari baino gehiago azaldu nahi den ideiarri ematen diot garrantzia. Normalean ideia baten diseinutik abiatuta hasten naiz lanean. Sortze prozesua izaten da eskergarriena”.

Azken erakusketa Izaban egin berri du, hango Etnografia Museoan. Hainbat tamainatako 35 lan erakutsi ditu, tartean hilerrien serie bat: “Nekazaritzako hainbat tresna tradizionalekin batu nahi izan ditut hilerriak, gizonaren eta lurrairen arteko harremana azaltzeko”.

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 16a / 157. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

San Isidro ferian txistorra dastatzea egongo da, Kongorako dirua batzeko

AINZANE IRIZAR

San Isidro eguna atzo zen arren, bihar, zapatua, egingo da feria, ohikoa den moduan. Goizeko hamarretan hasi eta 14:00ak arte hainbat postu egongo da ikusgai plazan; artisauak, abeltzainak eta bertako produktuen saltzaileak jarriko dituzte postuak.

Ekitaldiz betetako eguna izango da zapatua: artisau eta abeltzain postuak eta hainbat saltzaileak egongo dira plazan eta kaleetan, txistularien kalejira izango dugu, hainbat lehiaketatako sariak banatuko dituzte...

Goizeko hamarretan zabalduko dituzte postuak eta 14:00ak arte hainbat produktu ikusteko eta erosteko aukera izango dugu Herriko Plazan eta plaza inguruan.

Feriako postuez gain, lehiaketan parte hartu duten kuku-marroak ere ikusgai jarriko dituzte zapatu goizean, eta sariak ere orduantxe banatuko dituzte. Hiru mailatan antolatu dute lehiaketa: 12 urtetik beherakoak, 12 urtetik gorakoak eta erretiratuak. Maila guztietako irabazleek jasoko dituzte sariak zapatu goizean.

11:00etan meza egongo da; 12:00etan, berriz, txistularien kalejira eta Patxiko Txerren Ipuingintza sarien banaketa. Ipuingintza sariketa horretan parte hartu duten Herri Ikastetxeko neska-mutikoen artean hainbat opari banatuko dituzte eguerdi aldera.



ARTXIBOA

Eguerdian banatuko dituzte Patxiko Txerren Ipuingintza sariak.

KONGORAKO DIRUA BATUKO DUTE

Ezohiko ekitaldi bat ere antolatu dute zapatu arratsalderako. Txistorra dastatzea egongo da Herriko Plazan arratsaldeko seietan. Han batutako dirua Kongora bidaltzeko izango da, eskolak egiteko eta hango umeen ikasketak ordaintzeko, hain zuzen ere.

Bittor eta Andres Arbulu ekainean joango dira Kongora eta hilabete osoa egingo dute hantxe. Orain dela bi urte ere egon ziren Kongon, Kanzenia herrian, hain zuzen ere, eta orduan hasitako lanarekin jarraitzea doaz orain-

goan. Urtegi batetik herrira ura eroateko hoditeria jartzera joan ziren orduan; orain, berriz, instalazio hori bukatu eta ura garraiatzeko probak egitera doaz, lanak amaitzeko.

Bestalde, Kanzeniatik gertu dagoen herri batera ere joango dira lanera, lurpeko ura ateratzeko putzuak egitera, hain zuzen.

Herri hartan, Kanzenian, alegia, Bilboko abade bat dago; abade hark urteak daramatza inguruko umeendako eskolak egin nahian, eta badirudi lortu duela. Hark, baina, 1.200 bat umeren-

dako eskola atera du aurrera eta 1.800 bat umek eman dute izena. Gauzak horrela, eskola handitzeko beharra dauka; izena eman duten gainetik 600 ume horien ikasketak ordaintzeko ere behar dute dirua.

Zapatuan egingo duten txistorra dastatzea, beraz, Kanzenia eskola hartarako dirua batzeko antolatu dute. Antzuola-ko Elkartasun Taldeak, Anelkarrrek, eta Bittor eta Andresen lagun talde batek antolatu dute txistorra dastatzea dirua Kongora bidaltzeko.

LABUR

Txus Congilek hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza


Gertu Gae herri plataformak antolatuta, Askagintzako eta Adoreko kide Txus Congilek hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza. Drogamenpekotasunak Euskal Herrian izan duen eraginaren gainean jardungo du Txus Congilek. Udaltxean izango da hitzaldia, 19:15ean.

Ondasun higiezin zerga ordaintzeko epea

Ondasun higiezin gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epealdia zabalik dago atzo ezker (maiatzak 15), eta ekainaren 30era arte egongo da irekita. Zerga horren ordainketa helbideratuta dutenei, berriz, zuzenean kobratuko zaie bankutik edo aurrezki kutxatik.

Postontzietan pegatina berdeak jarri ditugu

Goienkaria-ren banatzaileen lana errazteko, aldizkaria etxean jasotzea eskatuta dutenen postontzietan pegatina txiki berdeak jarri dituzte. Eskertuko genizuke pegatinak daudenetan lagatzea, jarri zizutuztenetik batek baino gehiagok kendu egin ditu-eta.

 **Zabalo Iturgintza S.L.**

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxe:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

KIROLA

Pala Txapelketako finalak bihar, zapatua

AINTZANE IRIZAR

Aurreko zapatuan jokatu zituzten Olalde elkarrekin antolatutako Herriko Paleta Txapelketako bigarren mailako finalerdiak, eta hantxe erabakita geratu zen zein bikote sailkatuko ziren finalerako. Lehen mailan, berriz, ligaxkako lehenengo biak sailkatu dira finala jokatzeko.

Bigarren mailan, Andoni Rodríguezek eta Aitor Azkaratek osatutako bikoteak Mendizabal aita-emeak izango ditu aurrez aurre finaleko partiduan. Izan ere, Rodríguezek eta Azkaratek

30-21 irabazi zieten, aurreko zapatuan jokaturako finalerdiako partiduan, Sergio Sánchezi eta Jon Pagaldairi.

Mendizabal aita-emeek, berriz, Peñalbaren eta Mansoren aurka jokatu zituzten finalerdiak, eta 30-27 gailendu zitzaizkien.

Lehen mailan, berriz, ligaxka jokatu dute; ligaxka horretan lehen bi postuetan sailkatu diren bikoteek jokatu dituzte finalak: Oskar Azkaratek eta Tomas Jaurregik Aitor Iraolaren eta Ruben Iturberen aurka jokatu dute.

Zapatuan izango dira finalak, esan bezala, 11:00etan.



Artolazabaldarren etxea bota dute

Simon Artolazabalen Etxea bezala ezagutzen duguna aurreko astean erabazi zuten. Aspalditik zegoen etxe hura botatzeko asmoa; izan ere, etxebizitzak egingo dituzte toki horretan. Sei etxebizitza, hain zuzen ere, egingo dituzte hantxe, eta horrela, Aiherra inguruneko lanak amaitutzat emango dituzte./A.I.

LABUR

Bake epailearen postua betetzeko deialdia egin dute

Antzuolako Bake epailearen eta bere ordezkoren postuak hutsik geratu dira eta Udalak deialdia egin du postu horietan betetzeko. Interesa dutenek udaletxean bertan eman beharko dute izena maiatzaren 20a baino lehen. 18 urte-tik gora izatea eta Antzuolan bizi izatea dira bete beharreko baldintzak.

Aritz Berraondo bigarren mailako finalera iritsi da

Joan den domeka arratsaldean jokatu zuen Aritz Berraondok bigarren mailako eskuz banakako finalerdiako partidua. 22-18 irabazi zion partidua hori Galartza VI.ari.

Horrela, finalerako sailkatu da Aritz Berraondo. Hilaren 23an jokatu du finala, Donostian, Peñagarikanoren aurka.

Bigarren mailako finala irabazten duena lehen mailara igoko da. Hortaz, aukera polita dauka Aritzek iaz galdutako postura itzultzeko.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Maiatzak 17
17:00: Antzuola-Internacional (Gazt.)

PILOTA
Maiatzak 17
11:00: Herriko Paleta Txapelketako finalak

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 10 Arrate 0 (Big. mail. err.)
Antzuola 7 Amara Berri 1 (Gazteak)

PILOTA
Deba Arroko Txapelketa
Oñati-Olalde (Kadeteak) 22-10
Oñati-Olalde (Nagusiak) 22-14
Olalde-Arrasate (Nagusiak) 4-22

Orain Antzuola.

Jose Angel Zabalo.
Antzuolako Alkatetzarako Hautagaia.

Bozkatu eraginkor.

eusko alkartasuna

EAJ PNV

M25 / ANTZUOLAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Ordezkarri politikoaren iritzia jaso ditugu maiatzaren 25ari begira



GERTU GAE

Mireia Unamuno

ANTZUOLA / 37 URTE / ALKATEA

Euskal Herritarrok taldearekin aurkeztu zen alkategai 1999ko udal hauteskundeetan, eta hura izan dugu alkate azkeneko lau urteotan. Aurretik zinegotzi izana ere bada Mireia.

Gertu Gae herri plataformako zerrendaburu aurkeztu zinen. Auzitegiek, baina, ez dizuete aurkeztuena laga. Zelan baloratzen duzu hori?

Zerrendak osatu genituenean, egia esan, espero genuen hau gertatzea. Hau PPren hauteskunde kanpaina da; Euskal Herriko arazoak Espainiako gainerako arazoak estaltzen ditu. Gobernuak hartu duen bidea da gogor ekitea eta horren beste ondorio bat da galarazpen hau. Denok batu eta denon artean irtenbideren bat proposatzen ez badugu, gainera, horrelaxe jarraituko dugu.

Zer egingo duzue maiatzaren 25ean eta egun horretatik aurrera?

Nik uste dut legitimitate guztia daukagula hauteskundeetan parte hartzeko eta gu bozkatzea joango gara. Maiatzaren 25etik aurrera, berriz, bada, ez dakit. Dena ez dago gure esku, beste alderdiek ere badute zeresana.

Kontuan hartuta ezker abertzaleak aukala alkatetza, ze ondorio ekarriko ditu egoera honek herrian?


Nik uste dut orain ere nabari dela krispazioa eta, noski, gero ere hor jarraituko du. Jendea urduri dago, eta ez ezker abertzaleko jendea bakarrik. Gero zer gertatuko den? Bada, ez dakit. Dena dela, guk lanean jarraitzeko konpromisoa hartu genuen.

Ze programa zenuten zehaztuta datozen lau urteotarako?

Hasita dauzkagun gauzeekin lanean jarraitu eta herriak dauzkagun beste behar batzuen alde lanean hasi.

Ze mezu helaraziko zenieke herritarrei?

25ean bozkatzea joan behar dela; gure bozka ez da balio gabea izango. Hauteskundeetatik kanpo laga gaituzte, baina ideiek hor jarraitzen dute.



EAJ-EA

Jose Angel Zabalo

ANTZUOLA / 52 URTE / ENPRESARIA

Datorren legealdia izango da Jose Anjel Zabaloren hirugarrena. Aurreko hauteskundeetan alkategai izan zen EAJ alderdiarekin; aurten ere alkategai izango da, baina, EAJ-EA koalizioarekin.

Hauteskundeotako egoera ezohikoa da guztiz. Zer iritzi daukazu AuB eta plataformei parte hartzen ez lagatzearen gainean?

Ez dira ohikoak, hori argi dago, baina ni ez naiz inor horren gainean politikoki berba egiteko. Kudeaketa administratibo, ekonomiko eta tekniko indartsu bat egitera goaz; baina Udalak ez dauka mekanismorik gai horren gainean jarduteko.

Dena dela, egoera honek zein ondorio ekarriko ditu herrian?

Herriaren %30 falta izango da eta, batez ere, herriarendako erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean, euren iritzia, gutxienez, kontuan hartu behar ditugu. Alkatetza lortzen badugu, ateak zabalik utziko ditugu serio lanera datorrenarendako.

EAJ eta EA lehen aldiz aurkeztuko zarete batera.

Bai, eta nik uste edozein aldetatik begiratzen dela ere, hori oso positiboa da. Oso garrantzitsua da abertzale guztiok, ahal dela, batera joatea.

Zein lehentasun zehaztu dituzue zuen programan?

Alde batetik, etxebizitzaren politikari garrantzi handia emango diogu. Alde zaharrean etxebizitza huts asko dago eta horiek eraberritzea bultzatzeko asmoa dugu, besteak beste. Gure iniziatibaz etxebizitzak promozionatzen ere jarraitu behar dugu.

Industrialdearena da beste erroka bat eta hori aurrera ateratzeko lan egingo dugu, behar handia daukagularako. Gai horretan ausartak izan behar dugu. Gazteei dagokienez, berriz, Gizarte Etxearen proiektuan berrihurtze bat sartzeko asmoa daukagu: ikasle gazteek taldeko lanak egin ahal izateko gela bat.



PSE-EE

Elvira Kortajarena

PASAI ANTZO / 55 URTE / FUNTZIONARIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako diputatu izana da Elvira Kortajarena; Antzuolan, berriz, lehenengo aldiz aurkeztuko da alkategai, PSE-EE alderdiarekin.

Egoera nahasi samarrean egingo dira datozen hauteskundeak. Zelan ikusten duzu AuB eta herri plataformei parte hartzen ez lagatzea?

Nik uste dut galarazpen horrek harreman zuzena duela talde horiek ETArekin atentatuak ez kondenatzearekin. Ezin da esan galarazpen hori indiskriminatua denik; hor dago, esaterako, Aralar. Terrorismoa kondenatzen du Aralarrek, eta hauteskundeetan parte hartzeko ez du inolako arazorik izan. Hau guztia erreflexionatzeko modukoa da.

Orain arteko PSE-EEko Antzuolako alkategaiak herrikoak bertakoak izan dira. Kanpokoak izateak eragingo dizula uste duzu?

Ni gipuzkoarra naiz eta Zumarragako gestoran lanean dihardut azkeneko bi urteotan. Gizarte Gaietako diputatua izandakoa naiz eta oso ondo ezagutzen dut Gipuzkoa osoa. Pertsonak dira niretako garrantzitsuena, eta kontuan hartuta, gainera, sozialistok zelako egoera gogorrean bizi garen, mehatxatuta, etengabe erasotuta, argi lagatzen dugu herritarrek direla guretako garrantzitsuena.


Zein da zuen programaren ardatza Antzuolari dagokionez?

Futbol zelaian belar artifiziala jartzeari, Ibarre auzoan aparkalekuak jartzeari... Eta niretako garrantzitsuena da pertsona nagusiei laguntzeko zerbitzuak jartzeari: telealarma zerbitzua, auzoen tutoretzak bultzatzea...

Zer esango zenieke hemendik herritarrei?

Sozialistok jendearen bizi kalitatea hobetu nahi dugula eta benetako politika egiten dugula. Labur esateko, eguneroko beharrianak bermatzeko lan egingo dudala.

"Jendearen bizi kalitatea hobetzeko egingo dut lan"



PP

Margarita Ferré

BARTZELONA / ETXEOANDREA

Hauteskunde batzutan aurkeztu den lehen aldia da Maria Margarita Ferré Antzuolako Udalerako PPko alkategaiarendako. Bartzelonan jaiotakoa da eta ezkondua dago.

Ze ondorio ekar diezaiolke Antzuola bezalako herri abertzale bati AuB eta herri plataformei hauteskundeetan parte hartzen ez lagatzea?

Batasunaren ondorengo diren AuB eta herri plataformak, hau da, ETA talde armatuaren tresnak, lege kanpo laga izanak, lehenengo aldiz ETA gure erakundeetan ez egotea ekarriko du. ETA ez da abertzalea, ETA talde kriminal bat besterik ez da, gure demokrazia apurtu nahi duena. Beraz, garbitasun demokratikorako neurri bat da ETA presente ez egotea.

Ze emaitza lortzea espero duzue Antzuolan?

Aurrez lortu genituen emaitzak hobetzea espero dugu eta Antzuolako Udalean ere PPren proiektu politikoa ordezkatuta egotea.

Zeintzuk dira zuen lehentasunak Antzuolan?

Herritarrengandik gertuago dagoen udal administrazioa defenditzen ari gara PPTik, eta eskumen eta baliabide gehiago izango dituzten udalak. Bestalde, herritarren zerbitzura egongo den eta gizartearen arazo eta beharrianak konpontzeko ahalegin guztiak egingo dituen udala bultzatuko dugu.

Zein da zuen programaren ardatza eta ze mezu helaraziko zenieke antzuolarrei?

PPrengan konfiantza izan dezatela esango nieke antzuolarrei. Herri eta hiri askotan kudeaketarako gaitasuna erakusten ari den alderdia gara. Pertsonen arduratzen gaituzte eta pertsonen eskubideak defenditzen ditugu. Askatasunarekin konprometituta gaudete eta antzuolar guztien askatasuna defendituko dugu. Guztiek nahi dutena esan ahal izatea nahi dugu, inolako beldurrik eta bortzarrik gabe.

"Antzuolar guztien askatasuna defendituko dugu"

"25ean bozkatzea joan behar dela esango nieke herritarrei"

"Alkatetza lortuz gero, ateak zabalik izango ditugu denendako"

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko maiatzaren 16a / 141. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Intxorta elkarteak omenduko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jaietarako danborrada prestatzen hasi dira elgetarrak. Danborradan parte hartu nahi eta izenik eman ez dutenak garaz dabilta oraindik. Bestalde, dagoeneko erabaki dute aurtengo jaietan zein izango den omendua: Intxorta elkarteak, hain zuzen ere.

Joan den zapatuan hasi ziren jaietako danborradarako entseguak, eta lagun askok eman dute izena, espero zenez. Falta diren danborrak eta kupelak Eibartik ekarri behar dituztenez, antolatzaileei guztira zenbat partaide izango diren jakitea komeni zaie. Hortaz, herritarrei jakinarazi nahi diete izena emateko azken eguna bihar, zapatua, izan-

go dela. Horretarako, interesatuek entsegu orduan Espaloiara jo beharko dute.

OMENALDIA

Aurtengo danborradako saria Intxorta elkarteari ematea erabaki dute, elkarteak hainbat jendek danborradan parte hartzeaz gain, berau delako Elgetako elkarreetatik danborradako filosofia ondoen jaso duena.

Danborrada berezia izango da aurtengoa, herriko ereserkia estreinatuta behar dute eta nagesiek eta umeek batera.

Ikuskizun bakarra eta ahaztezina izango dela adierazi dute antolatzaileek, eta herritarrei bertan parte hartzeko dei egin nahi diete. Bide batez, Intxorta elkarteak bazkideei aurrez zorioren eman nahi dizkiete.



Intxorta elkarteak danborradan parte hartzea eskertu nahi dute antolatzaileek.

ARAU SUBSIDIARIOAK

Arau subsidiarioak onartu ditu Udalak

Udalbatzar berezia izan zen joan den astean arau subsidiarioak aztertzeko. Udalbatza osatzen duten alkateak eta zinegotziek Elgetako plangintzaren arau subsidiarioak berriro aztertu ostean, egokitu eta behin-behineko onarpenera eman zieten. Sozialista Abertzaleak alderdiko hiru zinegotziak botazioan abstenitu egin ziren arren, gehiengo osoz onartu zen proposamena. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak azken onarpenera ematea baino ez da geratzen. Horretarako sei hila-

bete izango ditu, Elgetako Udaletik arau subsidiarioen txostena Foru Aldundira bidaltzen dutenetik, hain zuzen ere.

ALEGAZIOAK

Guztira arau subsidiarioen gaineko hamalau alegazio aurkeztu ziren eta horietatik zazpi baino ez dira onartu. Hortaz, gainerakoak aldatu egingo dituzte.

Horren ondorioz, herriko hainbat lurretan eraikinak egiteko zeuden mugak egokitu egin dituzte, jabeen eskariz.

LABUR

Anbulatorioko pediatria zerbitzua luzatzeko eskatu dio Udalak Osakidetzari

Udaleko Osasun eta Ongizate Gizarte batzordeak, Bergarako osasun zentroaren bitartez, Elgetako ambulatorioko pediatria zerbitzua luzatzeko eskaria egin dio Osakidetzari. Astean bi orduz baino ez da izaten umeendako sendagilea Elgetan: eguenean, 13:00etatik 15:00etara, hain zuzen ere. Azken urteotan jaiotze tasak gora egin du Elgetan, eta, horren ondorioz, bi ordu horiek ez dira nahikoa herritarren beharrei erantzuteko.

Ariniketan taldea Areto Futbol Txapelketako sailkapeneko buruan

Elgetako Areto Futbol Txapelketako bi jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko eta Ariniketan taldea sailkapeneko lehen postuan dago, lau punturekin. Bihar, maiatzak 17, hiru partiduko jokatu dira: Txapela Ariniketan-en aurka, La Kokotxa Komando Piperak-en kontra eta Bar El Arco Vicios-en aurka.

IRAKURLIARENTXOKUA

ELGETARRENTZAKO AUKERARIK ONENA

Aurrekoan Iban Arantzabalek udal hauteskunderi buruz eskaini zigun gogoeta irakurri ondoren, badaezpada, nire iritziz aukera zuzena zein den gogorarazi nahi nioke. Ibanek idatzitako guztiarekin ados nagoela esan behar dut alde aurretik, batez ere azken zatia: "onenak lortu deizela botu gehixen eta kapaz izan deila beste bi alderdixekin gobernatzeko". Bere kriterioak erabiliz aukera onena EAJ-EA koalizioarena zergatik den argituko diot Ibani:

- 1) Talde lana: Elgetako udala bikaintasunez kudeatzeko lan talde aparta eskaintzen diegu elgetarrei, esperientzia, gaztetasuna, gaitasun profesionala eta, bereziki, herriaren alde lan egiteko ilusioa.
- 2) Proiektuak eta programa: Pagatza, etxebizitzak, eguneko zentroa, haurtzaindegia, saihesbidea, oinezkoentzako hirigunea, gazteentzako jarduerak gauetan eta asteburuetan... Hauteskunde egitarau osoa nahi duen guztiak elgetakoeajea@euskalnet.net helbidean eskaria eginez jaso dezake.
- 3) Transparentzia: Elgeta bezalako herri txiki bateko gauzei buruz ez dakienak nahi ez duelako da. Demagogia egitea nahiko norma da hauteskundeetan baina, Iban, ez behintzat zu bezain herritar arrazional batentzako. Arrazoi hauek guztiak nahiko ez balira, egia ere bada hautagai jator, guapoguapa eta dotoreak datozela nerekin batera EAJ-EA koalizioaren zerrendan. Beraz, Iban, zure botoa jasoko dugulakoan nago.

EDUARDO ZUBIAURRE
EAJ-EA koalizioa
5. hautagaia.

DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzagena
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84



Aldatzeko sasoia da

Elgetako ARALAR: ezker abertzale berria

Partaidetza bultzatu.

- Udala herritarrongandik gertu.
- Gobernu batzordea alde batera laga: batzordeak eta plenoak indartu.
- Proiektuak gauzatu aurretik herritarrei galdetu.

Talde lana eragin.

- Erabakiak taldean hartu.
- Udaleko gainontzeko alderdiekin elkarlana.
- Elgetako eragile sozial eta elkarteekin hartu-emanak estutu.

Etorkizunerako egitekoak.

- Dauden zerbitzuak eta egiturak egoki mantendu.
- Lanpostuak sortu: Pagatzako industrialdea handitu.
- Babes ofizialeko etxebizitzetzi lehentasuna: Torrealdea eta Uriburu.
- Elgetarron bizi kalitatea hobetu: haurtzaindegia, irisgarritasun plana, autoen abiadura mugatzeko neurriak (bariantea), eguneko zentroa, Debagoieneko tranbia, energia berriztagarriak...
- Natur aberastasunak eta errekurtsuak zaindu: Asentzio, Intxorta, Eguarbitza, Aixola, San Roke oste.

Erabakiak behetik gora hartzeko, ezkerretik eta gardentasunez maiatzaren 25ean bozkatu etorkizunaren alde, baliozko botoa Elgetako Aralar

Lizarra Garazi da bidea

*Elkarrizketa
Suetena
Autodeterminazioa*


*Pertsona guztiak,
proiektu guztiak
eta ideia guztiak.*

ARALAR

*Zure
botoa*

M25 / ELGETAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Elgetarren nahiei erantzutea dute helburu ordezkari politikoeak



EAJ/EA

Patxi BasauriELGETA / 58 URTE
ALKATEA

Joan den 27 urte hauetan alkate postuan egon ondoren, aurten EAJ/EA koalizioak aurkeztu duen zerrendako burua da Patxi Basauri. Berriz ere alkate izateko asmoz dator.

Elgeta berri bat, mende berrirako da zuen leloa. Zein da zure eskaintza?

Azken urteotan lehen mailako beharrak asetzea lortu dugu. Orain mende berriko beharrei egokitzea dagokigu. Elgetarrok gustura bizi eta are harroago sentiaraziko gaituen Elgeta berri bat sortzea.

Zein jokabide hartuko du zuen alderdiak plataformaren zerrenden legez kanporatzearen aurrean?

EAJ/EA koalizioko alderdiak neurri horien aurka agertu gara. Guk herritarren borondatea errespetatu, bakea eta elkarbizitza sustatu eta era demokratikoan erakundeak kudeatuko ditugu.

Zelan ikusten duzu hauteskunde osteko geroa?

Bizi dugun giroa euskal herritar guztion kontrakoa da eta geroa korapilotsua izango da. Baina politikan gabiltzanok egoera zaileri aurre egiten jakin behar dugu, burua galdu barik eta ordezkatzeko ditugun herritarren nahia kontuan izanda.

Berriz alkate izanez gero...

Orain arteko bidea ona izan da eta emaitzak agerian daude. Hobetzekotan, herritarren parte-hartzea areagotuko nuke. Egungo gazteria inoiz izan dugun prestatuena dugu, eta hori aprobetxatzen asmatu behar dugu.

“Hauteskunde ostea korapilotsua izango da”



PLATAFORMAKO KIDEA

Edurne AlberdiELGETA / 57 URTE
ADMINISTRATZAILEA

Atzera botatako Elgeta Auzolanian plataformaren zerrendan lehena da Edurne Alberdi. Hauteskundeetako egoera bereziaz berba egin digu Edurnek berak.

Zein deritzozu hauteskundeetan gainean sortu den egoera bereziari?

Euskal Herrian gertatua iruzur hutsa izan da. Nik aurrez ez dut ezer egin, hortaz, zergatik ez dute uzten nire izena zerrenda baten jartzen? Badira beste batzuk euren ideiei eutsi arren hor daudenak, eta hori kezagarria da.

Zerrendak atzera bota dituztela eta zein jarrera hartuko du Elgeta Auzolanian plataformak?

Jendeari botoa eskatuko diogu. Elgetan sinadura asko jaso genuen, eta legezko moduan aurkeztuko gara. Hauteskunde egunean botoak kontatzen saiatuko gara.


Zein aurreikuspen egiten duzue maiatzaren 25aren osterako?

Udalean eskuratzen ditugun botoen arabera ordezkari izaten ahaleginduko gara, eta Elgeta herri txikia izanik ez dut uste beste alderdiekin gaizki konponduko garenik. Alderdi ez abertzaleek ez dut uste ordezkari izango dutenik Udalean.

Elgetako alkate bazina...

Plangintza ekonomiko bat egingo nuke hasteko. Bestalde, herritarrei Udalean parte hartzeko aukera emango nuke. Momentu oro erabakiak zergatik hartu diren jakiteko eta euren iritzia emateko aukera izan dezaten.

“Euskal Herrian gertatua iruzur hutsa izan da”



PP

Mari Carmen OlíasKORDOBA / 47 URTE
ABOKATUA

PP alderdiak Mari Carmen Olías abokatua aurkeztu du zerrendaburu. Lehen aldia du politikan eta Udalean postu bat eskuratuz gero ilusioz ekingo lioke lanari.

Azken hauteskundeetan PPK ez zuen zinegotzirik lortu; hala ere, berriz aurkeztu duzue alkategaia.

Elgetarrei Alderdi Popularraren ideien aldeko botoa emateko aukera eskaini nahi diegu. Bestalde, herritarrek nahi badute udal korporazioaren aniztasuna zabaltzeko modua ematea da gure asmoa.

Zein ondorio izan dezake plataformaren zerrendak atzera botatzeak?

Ondoriorik nabarmenena zera da: gure sistema demokratikoari iseka egitea eta berau hondatzea nahi duten horiek ezingo dira erakundeetan egon. Euskaldunon askatasunerandako bidean beste pauso bat da hau.

Egoera berezi hau zuen alderdiaren onerako ala kalterako da?

Ez onerako ezta txarrerako ere, gauzak bere lekuan jartzeko baino ez du balioko egoera honek.

Zein aurreikuspen duzue maiatzaren 25erako?

Alderdi Popularrak Elgetako Udalean ordezkari izan gura luke. Horrela, herriari aire eta ideia berriak ekarriko lizkieke.

Zer agintzen die PPK elgetarrei?

Lan duina, ilusioa eta beste ikuspuntu bat. Askatasunaren eta aniztasunaren babesle izango gara.

“Udalean aniztasuna lortzea da gure asmoa”



PSE-EE

Fernando MuxikaDONOSTIA / 41 URTE
ABOKATUA

Gipuzkoako gainerako herrietan moduan, Elgetan ere PSE-EEK bere hautagaiak aurkeztu ditu, herritarrei alderdi guztiei botoa emateko aukera eskainiz.

Zelan aurkeztu duzu zeure burua Elgetan?

Alderdi konstituzionalistendako egoera zaila den arren, hauteskundeetan gure presentzia bermatzearen eta elgetarrek gure alderdiari bozkatzeko aukera izan dezaten aurkeztu naiz.

Zein eragin izan dezake Elgetan plataformaren legez kanpo uzteak?

Aurreikuspenak egiten hasita, EAJ/EA koalizioak irabaziko du eta gobernu batzordeak berdin jarraituko du. Sozialista Abertzaleek ezin izango dutenez Udalean zuten papera betetzen jarraitu, kexatu egin daitezke. Plataformarenak izan zitezkeen botoak koalizioak edo Aralarrek jaso ditzake eta gure alderdiak zinegotzirik lortzea zaila da.

Zein proiektu ditu zuen alderdiak Elgetarako?

Industriagunea bultzatzea, horretarako, dirulaguntza publikoak lortuta. Bestalde, herriak daukanari eustea eta hobetzea nahikoa da Elgeta bezalako herri txiki eta lasai batendako.

Politikoki zein mezu duzue herritarrendako?

Nazionalista ez den alderdi batek bere zerrenda aurkezteak duen balioa uler dezaten eskatzen diet. Jendeak betikoei ez ezik, beste alderdi batzuei botoa emateko aukera izatea da gure nahia.

“Gure alderdiak zinegotziak lortzea zaila da Elgetan”



ARALAR

Oxel ErostarbeELGETA/24 URTE
GEOGRAFIA IKASLEA

Aralarrek lehen aldiz aurkeztu du hautagaia Elgetan. Zerrendako gehienak bezala, alkategaia ere gaztea da. Oxel Erostarbek euren asmoak azaldu dizkigu.

Zein aurreikuspen duzu maiatzaren 25erako?

Gura genuke alkatetzatik eraikitzea, baina herritarrek aukera dezatela. Ezberdintasunak gaintuz beste alderdiekin gobernatuko dugu. Alternatiba gara, proiektuak aurrera ateratzeko talde egokiena eta eraginkorra.

Plataformaren zerrendak atzera botatzeak zein ondorio ditu?

Dena ikusteko dago eta alderdi guztiok heldu behar dugu adostasunetara. Nulua izan edo ez, boto bakoitzaren atzean iritzia errespetatzea merezi duen herritarra dago. Elgeta Auzolanian plataformari babesa emango diegu txartelak hautesontzian sartu eta zenbatuak izateko eskubidean.

Egoera hau onuragarria da zuendako?


Ez guretzako ez inorendako. Herriarendako txarra da gertatzen ari dena eta guk, siglen gaintetik, herriari ematen diegu garrantzia.

Arrazoi bat maiatzaren 25ean zuri botoa emateko.

Herritarrengandik gertu egoteak eta taldean bereizten gaitu gainerako alderdiek. Aralarri botoa ematea taldeari botoa ematea da, behetik gorako politika gardeneren alde egitea. Ezkertzaile eta abertzaleek, aldaketaren aldekoek, hemen dute aukera.

“Aralarri botoa ematea taldeari botatzea da”

Espainolen legeen aurrean desobedientzia eta intsumisioa



**Etorkizuna irabazteko
Euskal Herria eta Elgeta,
auzolanian aurrera**

Bozkatu aldaketa

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Ozaetako
jaietan,
1963. urtean

O rain dela 40 urteko argazkia duzue albokoa, 1963an ateratakoa da-eta. Garai hartan Ozaetako jaiak Pazko astelehenean ospatzen ziren, Aste Santuaren ondoren, hain zuzen ere. Auzotarrek esan digutenez, giro ezin hobea egoten zen eta erromeria eta txirrindulari lasterketa izaten ziren jaietako ekitaldi nagusi. Erromeria alaitzera musika talde bikainak etortzen ziren, Vicente Lazkano soinu jotzailea tartean. Gainera, hamar bat pezeta ordaindu behar izaten zuten bertaratuek dantzatzearren.

Alboko argazkian honako hauek agertzen dira urte hartako lasterketa irabazi zuen txirrindulariarekin, ezkerretik hasita: Jesus Oroiz (mutiko ilehoria), Juan Mari Etxeberria, Esther Arrondo, Honorio Agirregabiria, txirrindulari ezezaguna, Agustin Arantzabal *Gaztelu*, Asun Azkargorta eta Jesus Mari Arruabarrena.

Argazkia: Esther Arrondo.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA


Ibargarai
kalea

H amar urte baino gehiago pasatu dira alboko bi argazkien artean, eta irakurle batek baino gehiagok zailtasunak izango ditu Ibargarai kaleko lehengo itxura gogoratzeke, azken urteotan han eraikitako etxebizitza berriek sekulako aldaketak eragin dituzte-eta. Zalantza barik, itxuraldaketa izan jaso du Ibargarai. Etxebizitzak eraikitzearekin batera, inguru erabat aldatu da.



≈ 1992

Orain dela hamar bat urteko irudia. Oxirondoko azoka berria egin aurretik, ezkerreko etxearen ondoan egon zen azoka.




2002

Etxebizitza mordoia eraiki dituzte azken urteotan Ibargarain, eta errepedea ere aldatu da; zirkulazioa zuzentzeko biribilunea jarri zuten.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



Patxi Basaurirekin

Elgeta beti aurrera.



Bozkatu eraginkor.



oso urruti ikusten
duzula itsas bidaia
bat egiteko ametsa?



orain oso gertu ikusiko duzu

MultiOpticas-en

Lente Progresiboak

120€urotik aurrera

...eta zozketatzen ditugun 400
itsas bidaietatik bi eraman itzazu



Zure lente progresiboak MultiOpticas-en
erostearren, bi lagunendako Mediterraneoan
zeharreko itsas bidaia irabaz dezakezu.

Promozioa 03/05/01-03/06/15. Ez metagarria beste eskaintza batzuetara.
Notario aurrean eginiko oinarriak.

MULTIOPTICAS

Ibargarai, 15 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA



GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak



UR kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

El izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32

bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria

